



ARGIA

EUSKAL GATAZKAKO DESAGERTUAK

BEDERATZI PERTSONA HAUEK
EZ DIRA SEKULA AGERTU

32-39.orriak

#2.769 | 2022/03/06 | 4,00 €



**Eta balea salbatuko
bagenu klimaren
aldaketari aurre egiteko?**

12 | NET HURBIL



**"Pentsamendu
federala komeni
zaio euskarari"**

16 | ION CELESTINO



**Eider Rodriguezen
'Eraikuntzarako
materiala'**

44 | LITERATURA

2. argitaraldia



Sendabelarrek dakitena

EZAGUTU, BILDU ETA ERABILI

Garbiñe Larrea

248 orrialde

25€

+ 4€
bidalketa
gastuak

40€-tik gorako
erosketetan,
bidalketa doan.



azoka.argia.eus 943 37 15 45

Lasarte-Oriako ARGIAren egoitzan denda zabalik **08:00**etatik **15:00**etara
(beste ordutegiak aurrez kontsultatu).



ARGIA

BIZI BARATZEA

Panorama

- 04 | ASTEKO ARGAZKIA
- 06 | AKTUALITATEA
- 08 | EKONOMIAREN TALAIAN
- 09 | HUMANITATEAREN UNE GORENAK
- 09 | EZ HANKA EZ BURU

AZALEKO MUNTIAIA:
DANI BLANCO

Iritziak

- 21 | MIKEL ZURBANO
- 22 | KATIXA DOLHARE
- 23 | ENENKO OLASAGASTI
- 23 | EVA PEREZ-PONS
- 24 | INMA ERREA
- 25 | VICENT PARTAL

SAILLEN GOIBURUETAKO ILUSTRATIOAK:
CLIPART COURTESY FCIT

Finkoak

- 40 | DENBORAREN MAKINA
- 41 | ARGIA KOMUNITATEA
- 42 | BIZI BARATZEA
- 48 | KULTUR-KRITIKAK
- 51 | DENBORA-PASAK
- 52 | ARGI-KONTRA:
LÍDIA MANOT
- 54 | EZETZ ASTEA ONDO BUKATU



DANI BLANCO

44 | EIDER RODRIGUEZ
elkarriketatu du Danele Sarriugartek, *Eraikuntzarako materiala* liburuaz. Elementu autobiografikoak dituen eleberriko hainbat gaietan sakondu dute, besteak beste, aita-alabaren arteko harremanaz, hizkuntzaz... eta zintzotasunez idatzitako liburu horren zergatiak eta ondorioez.

Elkarriketak eta erreportajeak

12 | NET HURBIL
Zorioneko daude azken baleak: baliteke guk bizia barkatzea, milaka zuhaitzek baino CO₂ gehiago biltzen dutelako

Pello Zubiria

16 | PERTSONAIA | ION CELESTINO
“Euskarak Nafarroan ez du lanpostu duin bat lortzeko balio, baina bai underground gauzak sortzeko”

Reyes Ilintxea

26 | NAZIOARTEA | UKRAINAKO GERRA
Eta Errusiak gerra zabaltzea aukeratu du

Axier Lopez

29 | NAZIOARTEA | UKRAINAKO GERRA
Gerra “humanitarioak” berriro

Asier Blas

32 | POLITIKA
Oraindik desagertuak

Xabier Letona

Jabetza
Komunikazio Biziagoa
S.A.L. Ametzagaita Taldeko partaidea

Lehendakaria
Onintza Irureta

Erredakzioa
Amalia Lekunberri, Axier Lopez, Eneritz Arzallus, Estitxu Eizagirre, Gorka Bereziartua, Jenofa Berhokoirigoin, Jon Torner, Lander Arbelaiz, Leire Artola, Mikel Garcia, Onintza Irureta, Pello Zubiria, Peru Iparragirre, Urko Apaolaza, Xabier Letona, Zigor Oleaga

Diseinua
Maitane Gartzandia

Argazkilaria
Dani Blanco

Produktzioa eta inprimaketa
Antza S.A.L.

Administrazioa
Jone Arzallus, Mari Karmen Loarte

Salmenta
Karlos Olasolo, Olatz Korta, Pello Basurto

Azoka
Mikel Olabide

Idazkaritza
Aloña Soraluze, Bego Zuza

Web garapena
Asier Iturralde

Informatika
Iametzta interaktiboa, S.L.

Lege gordailua
SS 837-2012

ISSN
0213-909X

Batzorde parekidea
72562 E

GUREKIN HARREMANETAN JARTZEKO

Posta elektronikoak
komertzial@argia.eus
komunitatea@argia.eus

Telefona
943371545

Gipuzkoa
Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria

Nafarroa
Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina, 31001 Iruñea

Ametzagaita taldeko kidea da ARGIA honako enprekin batera:

antza
KOMUNIKAZIO GRAFIKOAK

iametzta
interaktiboa

ADUR software productions

Doan eta libre

ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitaratu ditzakezu, gure egile eta aitortu eta baldintza beretan eginez gero. Are gehiago, gure edukiak ahalik eta gehien zabaltzea nahi dugu.



Lizentzia hau soilik ARGIAren edukientzat da baliagarria, baliteke beste testu eta argazki batzuek lizentzia hau ez izatea.



EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEAREN
SAREKO KIDE GARA



ARGIA HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDEZAK DIRUZ LAGUNTZEN DU:

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

A photograph showing the lower half of a person running on a paved street. The person is wearing light-colored trousers and colorful sneakers with blue, red, and yellow accents. They are holding a black assault rifle. A red and white striped caution tape is stretched across the street, partially obscuring the person's path. In the background, there is a metal fence and a concrete pillar.

Triste eta ederra

Lehen begiratuan Euskal Herriko irudi bat izan liteke. Mozorroek kalean eragin dituzten egoera surrealista horietako bat. Baina segituan jabetuko gara irrikik ez dagoela gobernuak herritarrei banatutako arma lepoan zintzilik duenaren bisaian. Asteburuan munduaren zati handi bat ihauterietan murgildu da, jai kolektiboen pozak pandemiaren murrizketak ordezkatu ditu. Baina, tamalez, munduko beste zati askotan, Etiopian, Yemenen edo Ukrainan kasu, bonbak besterik ez dira izan kalean. Bizitza triste eta ederra zioen Joxe Ripiauk. Irudian: Kieveko herritar armatu bat, bonbek kaltetutako etxebizitza batetik ateratako katua eta arraina eskuetan.



Osakidetzaren “konponbide ezaren” aurrean, langileak greban

LEIRE ARTOLA ARIN

SATSE, ELA, LAB, CCOO eta UGT sindikatuek deituta, Euskal Autonomia Erkidegoan greban izan dira lehen mailako arretako langileak lehenengo, eta Osakidetza osoko langileak ondoren, osasun “publikoa eta indartsua” defendatzeko. Asteburuan protestak egin dituzte Gasteizen, Bilbon eta Donostian.

“Kokoteraino gaude! Osakidetza indartu!” aldarrikatu dute langileek, “Osasun Sailaren konponbide ezari” erantzunez. “Osasun zerbitzua erretzen” ari direla salatu dute sindikatuek.

Lehen Arreta Arnasberritzen elkar-teak bat egin du sindikatuek deitutako protestekin, eta salatu du egun langileek duten gainkargak egiturazko jatorria duela: “Pandemiak agerian utzi du lehen mailako arreta indartsua, erabakitzailea eta herritarrengandik gertukoa izateko beharra”. Ohartarazi dute arriskuan da-goela osasun publikoa.

“Lehen arreta arriskuan, zure osasuna ere bai” mezua helarazi dute Osalde, Osatzen, EFEKEZE eta Lehen Arreta Arnasberritzen eragileek. Halaber, Osakidetzari eginiko zazpi eskakizun zehaztu dituzte: langileen eskubideak lehenbait lehen bermatzea; osasun publiko uni-bertsal, doako, integral, eskuragarri eta ekitatezkoa bermatzea; osasunerako eskubidea politika publiko ororen ardatz izatea; pribatizazioa eten eta pub-likazioa sustatzea; osasun sistemaren demokratizazioa; eta euskarazko arta bermatzea.

AURRERAPASORIK EZ

Langileak kexu dira urtarrileko mobilizazio jendetsuen ondoren Eusko Jaurlaritzak ez duelako “pausorik eman”. Are gehiago, Jaurlaritzatik igorritako mezua izan da ez dela “grebarako unea”. Osakidetzaren “immobilismoaren aurrean”,

manifestazio jendetsuak egin dituzte Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako hiriburuetan. Protestek izandako jarraipena “langileen nekearen eta berehalako, egiturazko eta sakoneko konponbideen beharraren islarik onena da”, adierazi du ELA sindikatuak, “eta konponbide horiek martxan jartzen ez badira, mobilizazioak areagotuko ditugu. Mobilizatzeko eta Osakidetza bere posizioak mugitzera behartzeko unea da”.

**Osasun publiko
unibertsal, doako,
integral, eskuragarri eta
ekitatezkoa bermatzea
eskatu dute, osasunerako
eskubidea politika publiko
ororen ardatz izatea**



Kritiko mintzatu da baita LAB ere: “Lan zentroetan bizi den egoera gero eta prekarioagoa den bitartean, Osakidetzaren erantzuna da propaganda egitea eta aitzakiak bilatzea, neurri bakar bat ere proposatu gabe eta aldarrikapen bakar bati ere erantzun gabe. Are gehiago, pandemia aitzakia ezin hobea bihurtu da murrizketa, prekarizazio, inbertsio falta, pribatizazio eta osasun publikoaren desgite politikekin aurrera jarraitzeko. Kolapso egoera eta osasun-arreta jasotzeko zailtasunak agerikoak dira. Gure osasun-sistema publikoa etengabeko eraso jasaten ari da, eta horrek aliantza bat eragin du Osakidetzako langileen eta herritarren artean, azken asteetan ikusi dugun bezala. Aliantza horrek jartzen ditu zalantzan EAJren gobernuaren osasun-politikak”. ●

HUMANITATEAREN UNE GORENAK

Ez dut maite gerra



ARITZ GALARRAGA

Ez da Franz Kafkaren hoztasun hura –“Alemaniak gerra deklaratu dio Errusiari. Arratsaldean igeri egitera joan naiz”–, baina Stefan Zweigek ere ez zuen espero I. Mundu Gerra etorriko zenik –“Egia da tarteka pentsatzen genuela gerran, baina tarteka heriotzan pentsatzen genuen modu oso bertsuan: gertagarria zen zerbait, baina aski urrunean”–; ez eta hil zutenean Sarajevon Franz Ferdinand ere –“aurpegietan ez zen emozio edo haserre berezirik atzematen, tronwaren oinordekoa ez baitzen sekula izan pertsonaia maitea”–. Ostende ondoko bainuetxe batean ohartu zen gerra bertan zegoela: “Bat-batean soldadu belgikarrak ikusten hasi ginen, ordura arte hondartza zapaldu gabeak”. Izan ere, arrisku momentuetan handiagoa bilakatzen baita esperantza izaten jarraitzeko borondatea. “Oraindik ere, uda hitza ahoskatzen dudanean, gogora etortzen zaizkit automatikoki uztaileko egun distiratsu haiek”, utzi zuen idatzita *Atzoko mundua. Europar baten memoriak* izeneko liburuan.

Hannah Arendt irakurri duen honek, ordea, pentsatu nahi du III. Mundu Gerrarik ez dela etorriko, “gerra nazioarteko liskarretan antzina-antzinaz geroztik baliatu dugun arbitro gupidagabe behin betikoa ez baita inondik inora lehen bezain eraginkorra eta xarma ia osoa galdu du”. Motiboa: “Indarkeriazko tresnen garapen teknikoak halako une batera iritsi da egun, non ez baitago inolako helburu politikorik gaitasun suntsigarri horren araberakoa izan daitekeenik edo haren erabilera justifikatzaile gatazka armatu batean”. Hau da: “Batek irabaziz gero, biak akabo”. Pentsatu nahi dut III. Mundu Gerrarik ez dela etorriko, eta etorriko balitz, harrapatuko bagintu auskalo nongo hondartzetan, gerturik daukagu Boris Vianen *Desertorea*, IbonRGren ahotsean: “Jaun txit bihotzeko / Ez dut gerrarik gura / Ez naiz jaio mundura / Inoren hiltzeko / Ez zaitez haserra / Baina jakin ezazu / Desertore noazu / Ez dut maite gerra”. ●

EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA

www.adurlarrea.com



Presoak

Iratxe Sorzabal presoari 24 urteko espetxe zigorra ezarri dio Espainiako Auzitegi Nazionalak. Guardia Zibilak egindako torturen ondorioz bere burua inkulpatu zuela deklaratu zuen Sorzabalek, baina epaileek diote torturak ez daudela erabat frogatuta. Kezka adierazi du Europako abokatuen elkarte batek.

Langile borroka

Batu! aurkeztu dute Ezkerraldean, langileen antolakuntza bultzatzeko. “Klase kontzientzia bereko hainbat arlotako langilez eta langileentzat osatutako kolektibo” gisa aurkeztu du bere burua, eta auto-antolakuntzaren bidez, batasuna, elkartasuna eta klase borroka sustatu nahi du.

Euskaltzaindia

Miren Agur Meabe idazlea euskaltzain oso izendatu dute. Xabier Kintanaren hutsartea beteko du eta akademiak izendatutako 95. euskaltzain osoa izango da. Irakasle ikasketak eta Euskal Filologia ikasi zituen eta irakaskuntzan eta testu-liburugintzan aritu zen urte askoan. Gaur egun, idazlea da.

Pegatina bat



ULA IRURETAGOIENA

Erakusleihoko kartel batek aurki negozio-uzteari ekingo diotela dio, dendako produktuak azkenekoz erosteko aukera abiaraziz. Dendariak esango digu erosteko dinamikak aldatuz joan direla, merkataritzagune handien fenomenoari online salerosketen gorakada gaineratu zaienean, zaila dela negozioari eustea. Denbora luzez kaleko helbide berean mantendu diren denden itxierak kalearen izaera eta auzoaren ulerkeraren baten bukaera iragartzen dute. Denda historikoen agurrek enpatia kolektiboa sortu ohi dute, agortzen den aro baten amaierak ekartzen duten tristura. Denon gogora etorriko diren “betiko denda” horiek belaunaldi baten heriotzarekin batera desagertuko dira gure auzoetatik.

Kalea dendaren erakusleahoaren diseinurekin gogoratzen dugunean, denda “beti” leku horretan irudikatzen dugunean, denda hori salerosketa leku bat baino gehiago bilakatzen da. Kalearen parte izandako denda hauek istorio humanoz beteriko espazioak dira, izen-abizenekin agurtzen diren elkarrizketak jasotzen dituzten lekuak, garai bakoitzak ekartzen dituen berritasunei egokitze sormen ariketez beterik, auzo baten bilakaeraz hitz egiten dutenak (Uxue Alberdiren *Dendaostekoak*, horren isla).

Askotan, denda hauek garai bateko denda-diseinu eta grafikagintza gordetzen dute. Material noblez eta artisau elementuz jositako erakusleihota egiteko modu bat dago, eta normalean kolore xume eta argiztapen motela izaten dute. Horrelako denden ordezkaria frankizia bat denean, kalearen itxura zeharo aldatzen da. Izaera berezirik gabeko diseinu eta grafikoekin apainduko da denda berria, irudi deigarriagoak eta eguneratuak denbora laburreko bizitza izango duen denda kontzeptuari erantzuten dio, bost urteren langa gainditzea gauza handia bilakatzeraino. Denbora gutxiegi auzo-harremana eraikitzeke.

Herriguneko lokalak salmenta karteletz josi eta husten diren bitartean, hirietako aldiriak bete egiten dira. Saltoki handiek eta online banaketarako logistika biltegiek espazio eskaera handia dute, eta paisaia urbano hau Jaurilaritzaren baimenarekin burutzen da. Bitartean, herrietako denda txikien ateetan pegatina batek bertan erostera deitzen gaitu, hemengoari laguntza eta babes eske. Erresistentzia diren gotorleku-denda hauek pegatina batekin ari zaie eusten David eta Goliaten arteko lehiari. ●



Ihesi doazenen mailakatzea

JENOFA BERTHOKOIRIGGIN

Oroit negu hotz honetako argazki horietaz? Ukrainako muga, mugazainez josia, gizon armatua prest estekaturik daukan zakurra askatzeko. 8.500 soldadu bidali zituen Volodimir Zelenski Ukrainako presidentek mugak zaintzera; Poloniak mugak hetsirik, etorkinak bertatik bideratuko zirenaren beldur. Milaka etorkin, Ekialde Hurbilekoak –Irak, Kurdistan zein bestelako gudu-zelaietakoak–, Europaren/Ukrainaren eta Errusiaren/Bielorrusiaren arteko tirabiran peoi gisa erabiliak. Bidea mozteko “su-armak erabiltzeko prest”, Barne ministro Denis Monastirskik baimena emanik mugazainei. Ez zuten irudikatuko hortik lau hilabetetara haienak zirela mugan metaturik izanen, gerraz ihesi –enpatia gehiago behar luke geopolitikak–. Bost milioi izan daitezke, NBEaren errefuxiatuen Goi-Komisarioaren arabera. Gehienak emakumeak, haurrak eta adinekoak, gizonak gerrarako kanoi-bazka bihurturik.

“[Ukrainako] errefuxiatuak ongi etorriak dira” Europako Batzordeko presidente Ursula Von Der Leyenen hitzetan. Fartsa dirudien arren, zor zaion seriosotasunarekin begiratu diogu, eta poztuko gara ere, nola ez. Europako Batzordeak aste honetan erabakiko du inoiz bideratu gabeko direktiba bat aktibatu ala ez: hiru hilabeterako daukaten bisa gabeko baimenaren orde, gutxienez urte bateko egonaldi baimena emanen zaie, bi urtez luzatzeko aukerarekin. Igande honetan hitz egin zuten neurriaz, eta *mainstream* komunikabideek neurri historikoa isilean atxiki izana bera dugu esanguratsua. Badirudi gerra hurbildu arau deskubritzen dugula haren aurpegi krudela. Yemendar, maliar, somaliar, siriar... ulergaitza izango zaizue. Normala. Zuentzat bere horretan diraute Europar Batasunaren 1.200 kilometro paretek eta muga itxierak. Eta zer egingen du bada Europar Batasunak? Ardura 27 estatuen artean partekatu beharrean Polonia, Hungaria, Eslovakia eta auzo herrien esku utzi, atxikitze zentroak eraikitzeke milioiak bideratuz? Ageriko da.

“Gerraren kontrako koalizioa” martxan da, Zelenskiren hitzetan. Armak bidali dizkiote Europako estatu askok. Misilak, tankeak, kanoiak, droneak ala fusilak gerraren sinonimo dira, ez dira inoiz gerraren kontrako erremintak izanen. Gerratik ihesi doazen errefuxiatuen harrera berriz aktibatu beharra du Europak –ihesi doazen mailakatzerik gabe–. ●

14

asteko epea ukanen dute Ipar Euskal Herriko emakumeek abortatzeko –orain arte 12 astekoa zuten–. Aldaketa horren alde agertu dira Frantziako Parlamentuko 135 diputatu, beste 47k aurka bozkaturik eta bederatzik absteniturik.

1/4

Mundu osoko 15 eta 49 urte arteko emakumeen gutxienez %27ri sexu-erasoak edota fisikoak egin dizkie gizonezko bikotekideak, *The Lancet* hedabide zientifikoak kaleratutako ikerketa baten arabera.

4

aerosorgailu eraikitze baimena eskatu du enpresa batek Zizurkil eta Usurbil artean dagoen Ezkeltzu mendigunean. Denera 18MW-eko potentzia sortzeko azpiegiturak instalatuko lituzke bertan.



“Hainbat arrazoirengatik zuzenean murrura eramaten gaituzte helburutzat hartu ditugun hautagai politikoek”

**THIBAUT GODIN,
BIZI-KO BOZERAMAILEA**

Larrialdi klimatikoaren aurkako borrokarentzat mehatxu diren Frantziako Presidentetzarako hautagaiak salatzen hasi da Bizi.

2022-02-19



“KONTUA EZ DA SOILIK EMAKUMEAK* SEKTORE MASKULINIZATUETAN SARTZEA, BAIZIK ETA LAN FEMINIZATUEK MEREZI DUTEN BALIOA ETA AINTZATESPENA LORTZEA”

LAB SINDIKATUA

2022-02-15

“Euskal eta korsikar presoek eskubideak errespetatu, ez gehiago ez gutxiago”



MALIK SALEMKOUR

Frantziako Giza Eskubideen Ligako presidentea da Salemkour. Presoenganako Frantziako Estatuaren “mendeku jarrera” deitoratu du.

MEDIAPART (2022-02-23)

TEKNOLOGIA

Zaintzaren digitalizazioa




DIANA FRANCO

Mendekotasuna duten pertsonen zaintzaren digitalizazioaz pentsatzeko modu ezberdinak aurkitu izan ditut: batetik, teknologia gizadia salbatzeko gai dela esaten duen kontakizuna, eta bestetik, teknologia gizakiaren eta naturaren lanetan laguntza soil bezala ulertzen duen kontakizuna, ondorioz gaizkion arazoak konpontzea gizakion esku baino ez dagoela ulertuz.

Teknologia salbatzailearen kasuan, jada ikusten ari gara mundu bat non mendekotasuna duten pertsonen ongizate fisikoa digitalizazioaren teknologien bidez jarraitu daitekeen urrunetik. Kontakizun honetan, teknologiek zenbaitentzako onurak dakartzate: garapen teknologikoak eta horiekin lan eremu berrien garapenak, arreta presentziala egiten duten pertsonen kostuen murrizketa automatizazioaren bilakaeran, automatizazio horrek ekarriko dituen datuekin ezagutza berria eta horrekin berrikuntzak merkatu ezberdinak sortzeko...

Mendekotasun egoeran dauden pertsonetan zentratzen bagara, zein da kontakizun honetan onura handiena eurentzat? Autonomia? Baliteke, baina, zer dago autonomia ideiarene atzean? Susmoa dut pertsonen beharra murrizteko bide gisa ulertzen dela autonomia. Behar fisikoa izan baldin bada orain arte mendekotasun egoeran dauden pertsonen harremanak bultzatzeko arrazoi nagusia, zein harreman mota izango ditugu orain eurekin? Isolatuak utziko ditugu? Bakardadean? Zerbitzua, ezagutza eta merkatua hirukoan, non geratzen da mendekotasun egoeran dagoen pertsona? Denbora guztian aztertua den eta lehengai zein merkatu izaera duen objektu bat da?

Beharbada, zaintzaren digitalizazioa hartzen ari den bidea birpentsatu beharko genuke. Pertsonok hobeto pentsatu behar dugu teknologia lagunduta erronka honi zelan ekin ahal diogun. Martxoaren 8ko aldarrikapenak zaintzari lotu izan zaizkio neurri handi batean. Zaintzaren izaera, ordea, aldatzen ari da, merkatu berriak sortzeko aukerak ikusten direlako bere baitan. Beste behin, adi egotea dagokigu, zaintzaren digitalizazioa ikuspuntu feminista batek garatzea nahi baldin badugu. ●



DANI BLANCO

Babilonia eta literatur kanona

 GORKA BEREZIARTUA MITXELENA

Berrargitalpenek ez dute arreta handirik jaso izan euskal literaturan, baina tarteka, astroak lerrokatu direlako edo besterik gabe, hala tokatu delako, joera hori alda ote daitekeen pentsatzen hasten da letren zalea: iaz Susak Xabier Lizardiren *Bihotz begietan*-en (1932) edizio gaurkotua aurkeztu zuen. Duela bi aste berriz, Joan Mari Irigoienek *Babilonia* (1989) edizio berri eta dotorean aurkeztu du Elkarrek, Irati Jimenezek hitzaurrearekin. Altxako idazlearen mugarrietako bat da *Babilonia*, boom latinoamerikarrak euskarazko letretan izan zuen pisuaren adierazle garrantzitsuenetakoa bat. García Márquez eta abarrek mundu osoan famatu zuten errealeismo magikoa bertako giroetara –eta hizkuntzara, noski– ekartzen asmatu zuen Irigoienek.

Elkarren Mintegia bildumako bigarren liburua da *Babilonia*. 2020an Kirmen Uriberen *Bilbao-New York-Bilbao*-ren berredizioarekin ekin zioten sailari eta orduko hartan Xabier Mendiguren editoreak “transmisioa” hitzean jarri zuen letra larria: “Transmisioa ez da egonen den zerbaite; une oro zaindu behar da, literaturan ere”, adierazi zuen, *Berria*-n Joana Ibargaraik jaso zuenez. Kezka hori alor askotan ikusten ari gara, baina euskal literaturak iraganean eman dituen obra nabarmenenak berrargitara-

tzeari dagokionez, ez da erraza argitaletxeentzat apustu sendogirik egitea. Ematen dute zenbakiak balantza ekonomikoa orekatzeko? Lehenago ere Elkarrenaren antzeko intentzioak izan dira beste editorialetan, baina erreferentziazko bilduma baten falta agerikoa da. Eta problema ez dago argitaletxeen borondate faltan, nik uste.

Inguruko erdaretan ikasleak dira honelako liburuek duten publikoaren zati esanguratsu bat: ez da egongo Hego Euskal Herrian Cátedra argitaletxeko lanen bat sartu ez den etxerik; Ipar Euskal Herrian antzekoa gertatuko da Le Livre de Poche edo Points bidez publikatutako klasikoekin. Baina kasu horietan, badago eztaba-dagarria izan arren sendo samarra den klasikoek kanon bat. Euskaraz ez. Eta horren eraginez, argitaletxeek *Babilonia* edo *Bihotz begietan* esku eskura jarri arren, posible da irakurle berriengana kopuru txukun samarrean ez iristea. Unean uneko moden arabera irakurtzen da euskaraz, funtsezkoak izan ziren obrak ia arrastorik utzi gabe desagerraraziz.

“Nik ez dakit non hasten den gure baserriaren historia”, irakur daiteke Irigoienek nobelan. Irakaskuntzako irakurgaiekin urrats handirik eman gabe urteak badoazela ikusita, batzuetan pentsatzen dut agian ez gabiltzala Garayaldetarren tragediatik oso urrun. ●

Kale gorrian

📷 HIRITARRON HARRERA SAREA

DONOSTIA / Kale gorrian bizi direnei lotarako lekua eman diezaieten exijitzeko –zehazki La Sirena aterpetxea negu osoan zabal dezatela eskatzeko–, ostegunero kalean lo egiteko deialdiak ari da egiten Donostiako Hiritarron Harrera Sarea. Arazoari konponbidea eman ezean, martxoa amaiera arte ostegunero ekimena errepikatzeko asmoa agertu du sareak.



Energia

Autokontsumo fotovoltaikoaren aldeko apustu berri bat jakinarazi du Goienerrak: hiru ikastolek eta Andoaingo Martin Ugalde Kultur Parkeak parte hartu dute beren teilatuak utziz autokontsumoko instalazioak ezartzeko. Helburua, "energia sortzea modu lokal eta banatuan".

ITP

ITP Aero PCBko langileek lortu dute enpresak kaleratu nahi zituen 83 kideak beren lanpostuetara itzultzea. Garaipena lortu dute, 430 greba egun eta gero. Espainiako Auzitegi Gorenak berretsi egin du EAEko Auzitegi Nagusiaren ebazpena: baliogabetzat jo du enpresak egin asmo zuen lan erreforma.

Berdintasuna

Belen Bilbao mediku eta militante feministaren, Argitan Emakumeentzako Aholku Etxearen eta Skolastika literatur proiektuaren ibilbidea aitortu dute VII. Zirgari Sariak. Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bultzatzen duten proiektuak saritzen dituzte Bizkaiko Aldundiaren eta BBKren sariak.

ZORIONEKO DAUDE AZKEN BALEAK: BALITEKE GUK BIZIA BARKATZEA, MILAKA ZUHAITZEK BAINO CO₂ GEHIAGO BILTZEN DUTELAKO

Islandiak jakinarazi berri du 2024tik goiti ez duela gehiago balearik ehizatuko. Luzaz horien sarraskia salatzeke piztutako protestengatik ez bezala, orain islandiarrek amore eman bide dute baleak bizirik ikustera uharteraino hurbiltzen diren turisten diruagatik. Baina, gainera, Nazioarteko Diru Funtsa ohartu da baleak bizirik atxikitzea negozio ere izan daitekeela, beren gorotzekin itsasoko bizidunak elikatuz CO₂-a finkatzen oso onak direlako.

 PELLO ZUBIRIA KAMINO

Balearen Nazioarteko Eguna – hurbilagoko beste efemeride tristeago bat bezala otsailaren 20an ospatzen dena – galbidean dauden animalia mitiko horientzako albiste on batekin heldu da aurten: Islandiak iragarri du 2024an betirako luzatuko duela bere arrantzaleek balearik harrapatzeke debekua. Balea harrapaketa Nazioarteko Batzordeak (IWC ingelesezko sigletan) 1986an debekatu zuen arren horiek salerosketa-rako ehizatzea, Islandiak, Norvegiak eta Japoniak segitu dute horretan.

Balea generoen artean, Islandiaren erabakiak bereziki arnasa emango omen die zereei (*Balaenoptera*). Itsasoetan horietarik 100.000 geratzen omen dira. Zere bat zen 2012an Donostiako Kontxan lehorreratuta hil zen balea. 2013tik Islandiak horien haragia nagusiki Japoniara esportatzen zuen, baina arrantzaleak kexu ziren merkatu hark ez zuelako indarririk hartzen. Islandian bertan soilik herritarren %1ak jaten omen du maiztasunez balea haragia.

Azken urteotan, aldiz, oso bestelako industria batek hartu du indarra zetazeko

horien inguruan: itsasoan baleak bizirik ikusteko aukera ematen duen turismoarenak. Mundu mailan 2.000 milioi dolar mugiarazten omen ditu –soilik Islandian 22 milioi–. Uharteraino urtean 300.000 pertsona datoz asmo horrekin. Ageri da ekologistek *Meet Us Don't Eat Us* –“Topatu gaitzazu, ez gaitzazu jan”– esloganez turisten artean egindako kanpainak arrakasta lortu duela.

Merkatu berri hau ikusi bide du lanje-rean Reykjavikeko gobernuak; 2024an egokitzen zaionez arrantza-kuotak berriaz negoziatzea, arriskua zegoen be-



BALEAK IKUSTEN

Husavik inguruan, Islandian. Itsasoaren 'simaurretan' egiten duen lanarekin, ozeanoetako bizia elikatuz, CO₂-aren orekan ere garrantzia berezia dauka baleak. Argazkia: Adventures.com



rriro itsasoko ehiza odoltsuaren irudiz betetako kanpainak piztea, atzerritarren artean hartzuz Islandiara hurbiltzeko go-goak. Zertarako hil, bizirik diru gehiago dakarkiguna? Zereek ziur eskertu dutela gizakiek bizia barkatuz egin dieten opari berria.

Turistez gain, ordea, maitale berri eta are indartsuago bat azaldu zaie baleei. Nazioarteko Diru Funtsak hiru hilero plazaratzen duen *Finance & Development* buletinean argitaratu berri du ikerlan bat titulu kitzikagarri hau daramana: “*Nature’s Solution to Climate Change. A strategy to protect whales*

can limit greenhouse gases and global warming” (“Naturaren soluzioak klimaldaketari. Baleak babesteko estrategiak mugatu ditzake negutegi-gasak eta planetaren berotzea”). Zientzialari eta ekologistek aspaldi erakutsitakoa orain NDF boteretsuak bere egitea zerbaiten seinale izan daiteke.

Balea batek bere bizitzan zehar 33 tona CO₂ harrapatzen omen dizkio atmosferari eta kopuru hori egiteko mila-ka zuhaitz behar dira. Kakatan datza zerbitzu handiaren gakoa, baleak itsasoan barreiatzen dituen gorotzetan. Dokumentaletan inoiz ikusi ez dugun arren,

Baleak bizirik ikusteko aukera ematen duen turismoak munda mailan 2.000 milioi dolar mugiarazten omen ditu –soilik Islandian 22 milioi–

beste edozein animaliak bezala baleak ere kaka egiten baitu... eta ez gutxi, planetako abererik handienari dagokion adina ongarri barreiatzen du.

BALEAREN PREZIOA

Gorotz kopuru handiok aberatsak dira burdina, fosforo, nitrogeno eta abarretan eta zer jana ematen diete itsasoko fitoplanktonei. Ozeanoei bizia ematen dieten bakterio eta landare mikroskopikook sortzen dute, hain zuzen, planetak daukan oxigenoaren %50 eta urtean 37.000 milioi tona CO₂ zurrupatzten dituzte, sortutako guztiaren %40.

Fitoplanktonez elikatzen da krill famatua, krustazeo ñimiño bat ozeanoetako hainbat biztanleren elikagaia dena, tartean balearena (zeinak gorotzekin bazka emango dion berriro fitoplanktonari...). Eta hildakoa, baleak


Balea batek bere bizitzan zehar 33 tona CO₂ harrapatzen omen dizkio atmosferari eta kopuru hori egiteko milaka zuhaitz behar dira


itsasoaren sakonean utziko du dozenaka tona pisatzen duen gorpuan metatutako CO₂ guztia.

Horra zergatik balea populazioaren gainbehera erloju-bonba bat den planetaren oreka ekologikoarentzako. Balea

ehiza euskaldunek hasi zuten XI. mendean eta ondoko 700 urteetan Europa inguruko itsasoek ikusi zuten zetazeo hori urritzen. XIX. mendean, ordea, industrializazioa iritsi zen ozeanoetara ere eta XX.a amaitzerako planeta osoan zeuden 4 edo 5 milioi baleak murriztu ziren 1,3 milioitaraino. Atera kontuak zer nolako eragina ekarri duen galerak itsasoko bizidun guztien artean, krill, arrain, ugaztun eta hegaztiak barne.

“Baleei –dio NDFko ekonomialarien txostenak– utziko balitzaie ugaritzen ehiza industrialia hasi aurretik ziren 4 edo 5 milioi izateraino, fitoplankton kopurua asko handituko litzateke ozeanoetan eta horrek karbono asko harrapatuko luke. Soilik fitoplankton kopurua %1 handitzeak eragingo luke urtero milaka milioi CO₂ tona gehiago harrapatzea, bat-batean bi milioi zuhaitz





BALEA EHIZATUAK
lehorreratuta Spitsbergen
eskualdean, Norwegian, 1950ean.

heldu gehiago agertuta adina". NDFko ekonomialariek dirutan ere neurtu dute afera. Batetik dago gaur turismoarekin mugiarazten duten dirutzari. Baina horri gehitu behar zaio animaliok karbonoaren katean eragiten dutenaren balioa, CO2aren emisio-konpentsazio merkatuaren prezioetan. Dena zenbatuta, NDFeko ekonomialariontzako balea handi batek 2 milioi dolarreko balioa dauka eta balea handi guztien artean erraz gainditzen dute bilioi bat dolar. Zergatik ez hasi baleak bizirik atxikitzea saritzen?

"Planetako karbono emisioen %17 basoen suntsiketak eragiten dituela ohartuta, Nazio Batuen Erakundeak REDD izeneko konpentsazio programa abiarazi du beren basoei eusten dietenak saritzeko, CO2a atmosferatik at edukitzen laguntzen dutelako. Gisa berean sortu ditzakegu finantza-tresnak planetako balea populazioak berriro leheneratzen laguntzeko". Horrela finantzatzuko lirateke ez bakarrik azken balea ehiztariak lehorrean gelditzeko dirulaguntzak, baizik eta baita ere, esaterako, itsasontzi handiek -animalion

beste etsaiitsuak- baleekin talka egin ez dezaten konpainiek egin beharko dituzten ibilbide aldaketak ere.

Irakurle mesfidatiarekin batera galde dezakegu guk ere: balea batek benetan balio ote ditu bi milioi dolar? Zilegi da koste eta etekinen kalkuluetan hesitzea izaki bizidunak eta ura edo haizea bezalako baliabide naturalak?

"Noski baietz", erantzungo digute Greenwashing doktore-ek. Eta laster, Petronorrek ez bada Zabalgargik edo Gipuzkoako GHK-k beren CO2ak ordainduko dituzte baleak babestuz. ●



**ZINKUNEGI
OPTIKA**

NINA MÛR
eyewear

*Egurrezkoak
Eskuz landuak banan-banan
Jasagarriak
Arinak eta erresistenteak
Kalitate handiko eguzki-lenteak*



Hernani 23, 20004 Donostia • 943 420 624 • zinkunegioptika.com

Ion Celestino

MUSIKA BELTZAREN MAITALE SUTSUA



EUSKARAK NAFARROAN EZ DU LANPOSTU DUIN BAT LORTZEKO BALIO, BAINA BAI UNDERGROUND GAUZAK SORTZEKO



Musika beltza maite du betidanik Broken Brothers Brass Bandeko gidariak. Azken urte hauetan sutsuki ari da uztarketa lanetan: alde batetik musika eta komunitatea eta, bestetik, musika inprobisatua eta Euskal Herriko musikaren sustraiak. Plazaratu berri duten bosgarren diskoa duela urtebete grabatu zuten, eta bertan parte hartzen dute Iruñerriko oraingo musika loraldiko talde garrantzitsuenek.

 REYES ILINTXETA  DANI BLANCO

Zer du musika beltzak zuretzat horren erakargarri izateko?

Gauza asko. XX. mendeko musika popular guztiaren sustraian musika beltza dago, hasi muturreko rocketik eta musika elektronikoraino. Sustraiara joateko grina izan dut betidanik eta oinarrian musika beltza dagoela ikusi dut beti.

Lokatz antropologikoan sartuta, esango nuke kapitalismoa ulertzerik ez dagoela komertzio triangularrik gabe eta, modu berean, komertzio hori ez dagoela ulertzerik milioika afrikar bahituak eta Ameriketara eramanak izan ez

balira. Oinazearen eta kulturen arteko talkaren ondorioz sortzen diren kultur adierazpenek azaltzen dute gure mundua. Horregatik interesatzen zait ezagutzea zer gertatu den musikalki, eta baita historikoki ere.

Bestalde, nire ustez, komunitatearen ideia oso garrantzitsua da musika beltzean. Popetik hurbilago dagoen kanoa, adibidez, Beatlesen estiloa, nolabait esateagatik, niretzat nahiko itxia eta indibiduala da. Musika beltzaren historian, aldiz, taldean egina izatearen garrantzia nabarmentzen da beti. Izan ere,

New Orleanseko musika gehienari ezin zaio autore bat aitortu. Herri musika da. Mendebaldeko musika zurian, aldiz, pisu handia hartzen du autore-genioak. Nik musika beltza maite dut eta etxean musika beltz asko entzun dugu betidanik.

Oso gazte hasi zinen jendaurrean jotzen. Zure lehen kontzertuak aitarekin egin zenituen?

Bai, 12-13 bat urterekin. Amama Luisa Brass Band-eko taldekide gehienak Reinhard *Renato* Valeruz nahiko tipo berezia zen. Aus-



Ion Celestino Manterola

DONOSTIA, 1982



Jazz musikaria, tronpeta jotzaile eta irakaslea. Donostian eta Iruñean ikasi ondoren Goi Mailako jazz ikasketak egin zituen. Hamar urte zituela Reinhard Renato Valeruz kontrabaxu jotzailearekin inprobisazioa eta jazz musika lantzen hasi zen. Afroamerikar musikarekiko grinak zenbaezinezko grabaketa eta zuzenekoetan parte hartzera eraman du gaztetatik. Amama Luisa, The Foralettes, Lurpekariak eta Eskola Ergatiboa formazioetan ibili da. Broken Brothers Brass Band taldearen gidaria da eta haien bosgarren diskoa, *Katebegia*, berriki plazaratu dute.

triatik heldu zen hona 70eko hamarkadan. Kontrabaxu jotzailea zen eta haren inguruan jazz-zale asko mugitzen ziren. Niretzat oso garrantzitsua izan zen.

Musika biziaren bizipen hori oso hurbilekoa izan dut beti, horregatik estatuan goi mailako jazz ikasketak ezarri zirenean bide hori aukeratu nuen.

Zuk sortutako lehen taldea The Foralettes izan zen. Nolakoa zen? Duela 20 bat urte oso tematua ginen 50eko eta 60ko hamarkaden rhythm and blues eta soul estiloetan. Garai hartan oso ohikoa zen *girl group* edo nesken taldeak sortzea eta guk ere halako zerbait egin nahi izan genuen. Sei bat urtez aritu ginen talde honekin, baina, aldi berean, beste hainbat taldeetan aritzen nintzen. Nik ofizioa horrela ulertzen dut.

Jazzetik eta orokorrean musika beltzetik datorren ideia da. Batzuetan pentsatzen dugu talde bat ia milizia modukoa dela. The Rolling Stones ez da talde hori beraiek bostak ez badira, baina nik ez dut horrela ikusten.

Eta gero Broken Brothers Brass Band?

Renato hil ondoren Amama Luisarekin jarraitu nuen urte batzuetan, baina bukatzen joan zen. Garai horretan kontserbatorioan goi mailan ikasten ari nintzen eta ikaskide batzuekin sortu zen ideia. Taldea 2006an eratu zen, baina lehen diskoa 2012an egin genuen. Urte luzez grabatzeak edo ez grabatzeak ez zuen garrantzi handirik guretzat. Ikasketa prozesu bat izan zen.

Musika beltza hemengo tradizioarekin ari zara lotzen. Gurea ere musika komunitarioa da? Bai. Hori da. Komunitatearen kontzeptzio hori herri musika guztietan dagoen zerbait da. Bada, nolabait, herri batek bere buruari mundua azaltzeko sortzen duen zerbait, modu anonimoan normalean.

Nire irudiko, jazzak Mendebaldeko musika zuriaren bizio txarrenak hartzen ditu akademian sartzen den momentuan. Zerbait irakasteko erra-

zena da kanon bat sortzea besteez hori imita dezaten, baina ondorioz zurrundu egiten da, ezinbestean. Hori gertatu izan zaio jazzari azken urteetan, nire ustez, eta bereziki kontrabaxuarekin.

Ikasketak bukatzen ari nintzenean sentitzen nuen kanon horri ezin niola ezer gehitu eta nahiago izan nuen nire sustraiekin lotu eta ni bizi naizen komunitatearentzako gauza berriak sortu. Hortik heldu zen ideia hori. Orduan ohartu nintzen ere nire sustarietako gauza gehienak ez nituela ezagutzen, edo soilik oso modu azalekoan.



Iruñerrian gauza baten behar handia dugu: sindikatzea. Ez diogu geure buruari onartzen langileak garenik"

Tradizioa beti mugimenduan dagoen zerbait da...

Prozesu honetan aurkitu dudana da nik neuk definitibotzat hartzen nituen gauza asko ni jaio nintzen garaian fosilizatu zirela, ez lehenago. Gure gurasoek kristalizazio prozesu hori ezagutu dute. Jauziak, adibidez, etengabeko eboluzioan izan dira bai jotzeko baita dantzatzeko moduan ere. Baztango mutil-dantzak, guk ezagutzen ditugun bezala, ez dira denboraren gauean galtzen. Maurizio Elizaldekin kontatzen du nola bere aitak elkartu zituen hainbat jauzi egungo mutil-dantzen zikloa osatzeko. Niretzat, horretaz kontziente izatea oso dibertigarria da. Gure seme-alabentzat Sanfermin Txikiko ezpata-dantza %100 tradizionala da, eta 2009an sortu zuen Duguna Dantza Taldeak. Ezpata-dantza horren gauzarik inportanteena ez da noiztik izan den, baizik eta, hain zuzen ere, sortua izan dela Iruñean genuen behar bat betetzeko.

Folklore eta tradizioa bi kontzeptu kasi kontrajarri gisa ikusten ditut. Niretzat folklorea da kristalizatu den gauza hori. Une jakin batean tradizioak eman duen lore bat, "kontserbatu" behar duguna. Tradizioak aldiz, gauza berriak sortzen ditu etengabe. Batzuk gelditzen dira eta beste batzuk ez, baina guk segitu behar dugu erantzunen bila.

Eta zure esperimentatzeko gogo horretatik ere beste formazio batzuk sortu dira: Lurpekariak edota Eskola Ergatiboa, Nerea Erbitirekin.



Nik badut beharra gauza berriak probatzeko. Lurpekariak oso toki experimental batean zegoen eta seguruenera jasanezina da diska hori osorik entzutea jende gehienarentzat, baina bere fruitua eman du. Handik, eta era horretako esperientazio beste saioetatik, Brokenen disko berria eta Iruinkoko, Iruñeko Inauteri Euskaldunerako musika atera dira, esate baterako.

Laborategi modukoak izan dira. Nik neure burua eskulangiletzat hartzen dut eta horregatik esperimintatzea maite dut, baina jendearentzat interesgarriagoa da hortik ateratzen den emaitza, jakina.

Asko hitz egiten da Iruñerrian gertatzen ari den kulturaren eta, bereziki, musikaren loraldiaz. Zergatik orain, Iruñerrian eta euskaraz?

Zaila egiten zait erantzun zehatzak aurkitzea, baina uste dut ekaitz perfektua izan dela. Espainiako Estatuan orain dela zazpi-zortzi urte zartatu zen musika egiteko modua eta, nire ustez, musika beltzarekin harreman handi-handia duten jokamolde berri horiek zabaldu eta orain hemen garatu direla. 2015ean eta 2016an oso musika *guapo*a egiten ari zen Iruñean, baina ez ziren beraiei zirkuluetatik ateratzen. Orain, gainera, pandemiaren ondorioz elkarrekin ego-

teko beharra areagotu da eta lehenagotik zetorren mugimendua azkartu da.

Eta zergatik euskaraz? 2000ko hamarkadaren hasieran niretzat erreferenteak izan ziren musikarietako asko eta asko euskaldunak izan arren, gaztelaniaz edo ingelesez abesten zuten eta nik ere berdin egiten nuen, agian asetzen ninduten euskarazko erreferente konkreturik ez nuelako. Orain hori aldatzen ari da. Gainera, Nafarroan euskarak badu elementu kontrakultural bat agian beste toki batzuetan ez duena. Euskarak hemen ez du lanpostu duin bat lortzeko balio, baina bai, aldiz, undergroundeko gauzak sortzeko. *Slang* moduko bat da. Txantxetan esaten dugu, baina egia da: euskarafobiari eskerrak eman behar dizkiogu.

Bada beste arrazoi interesgarri bat, nire ustez, honekin lotuta: sozialdemokraziaren bidea hilda dagoela sentitu du jende askok. Hortik bide egiterik ez dagoela. 20-22 urte dituen norbaitentzat nerabezaroan gertatu zen bere gurasoek hainbeste amestutako mobida bat gauzatzen zela. Lehenbiziko aldiz "gureak", nolabait esateagatik, zeuden boterean, baina, lau urte pasata, hortik ez da ezer gelditzen. Orduan, ez badago ezer, egin dezagun geurea. Antola gaitezen gure artean, musika edo liburuak edo nahi duguna egiteko, gutxienez.

Azken hitza

FEDERALA

"Euskaldunok zenbaki handien eta gauza oso espektakularren batailan ez dugu ezer egiteko, horregatik ez dezagun denbora gal eta egin dezagun saretzearen aldeko lana eta ahalegina. Pentsamendu federala da euskarari komeni zaion planteamendua, nire ustez, ez nazio-tasuna. Federazio txikiak behar ditugu, elkarrekin lanean. Aurreko hamarkada batzuetan euskarazko musikak asko kantatu dio herri bat izateari, aberriari... eskala handi batean jarrita. Egungo talde gazteek, aldiz, hurbileko errealitateaz hitz egiten dute eta gai horiek partekatuz sare bat sortzen dute. Hain da lokala esaten dutena, azkenean unibertsa-la ere badela. Haien indargunea da hori eta jendea engantxatu egiten du".

Hemengo beltzak euskaldunak gara?

Neurri batean, baina gero badira gu baino beltzagoak, euskaldun izatea ere ukatua dutenak.

Modu batez edo bestez loraldiaren zurrunbiloaren erdian beti aurkitzen zaitugu zu. Aita ponteko modukoa zara? Zer harreman duzu taldeekin?

Agian astuna naizela? Talde ba-koitzarekin oso harreman desberdinak ditut, gauza asko egin izan ditugulako batzuekin eta besteekin.

Ibil bedi, adibidez?

Oso garbi ikusarazi didate nire errore taktiko handiena zein zen. Oso tematua egon naiz beti musika beltzarekin. Nire asmoa zen musika beltza modu masiboan zabaltzea Iruñean. Ibil bedikoek erakutsi didate egiten duguna baino askoz garrantzitsuagoa dela ikustea zer dugun elkarrekin egiteko. Nik ez dut gitarra-dun pop zuririk entzuten, Ibil bedi salbu, eta konexioa musikaz harago doa: interesatzen zait nortzuk diren, zertaz hitz egiten duten... Beraiek erakutsi didate hau eta, gainera, oso kantu politak egiten dituzte.

Chill Mafia?

Chill Mafiaren onena da hau dena hasiera besterik ez dela izan. Badute hazteko bide handia, zentzu guztietan, eta horrek kristoren poza ematen dit.

Harremana dator batez ere Beñaten-gatik. Aspalditik ezagutzen dugu elkar. Musika kultura izugarria du. Sakondu du jendeak uste duena baino askoz ere gehiago. Oso gazte zirela gure saioetara etortzen ziren, interes handia zuten reggae musikarekin, eta Iruñerria Jamaica Clash kolektiboan hasi zen gure harreman pertsonala. Ben Yart Mendillorri bizi zen, gure gurasoen parean. Hortik ikusi dugu beti, baina ez nuen harremanik berarekin. 2015-2016an bere musika hasi nintzen ezagutzen eta flipatu nuen. Tipo hau egiten ari da kanta eta bideoak bere etxean bere lagunak ikus ditzen, besterik ez. Mendillorri dagoen eszena oso potentea da eta hau adibide *guapo*a da. Mendillorri mobida hau gertatu zen ia Madril eta Bartzelonan gertatzen ari zen aldi berean. Oso



aurrean zeuden eta daude. Zergatik ez da lehenago gertatu Iruñerri osoan?

Nor gehiago azpimarratuko zenuke?

Niretzat oso garrantzizkoak dira Skabidean, nahiz eta beraiek beren burua hor ez kokatu, beraiek baino gazteagoak diren taldeak identifikatzen dituztelako mobida honekin. Harremana izan dugu musika jamaikar zaharra asko maite dutelako. Oso gauza onak egiten dituzte, eta gustatzen zait gauza askotan beste ikuspuntu bat daukatela. Gainera, iruditzen zait azken hamarkadetan euskaraz egin diren letra ederreneraiko batzuk dituztela. Oso erreferente potentea da gaur egungo gaztetxoentzat. Nik 15 urterekin ez nuen halakorik eta horrek poz handia ematen dit.

Taxters-ekin harreman gutxiago izan dut baina letrak ere oso onak iruditzen zaizkit. Gauzak azaltzeko duten argitasunak inbidia ematen dit.

Burutik ere oso talde interesgarria da. Rocka euskaraz eta akordeoiarekin. Asier Capon akordeoi jotzailearekin flipatzen dut. Iruinkokoan ari gara elkarrekin jotzen eta ikaragarria da.

Amets Aznarez beste erreferente bat da. Kinbonbo taldeko tronbonista da, orain Bartzelonan ikasten ari da eta ika-

ragarria da. Neska hau beste maila batean dabil.

Garazi Petrirena beste izen handi bat da. Jazza ikasten ari da eta instrumentu guztiak jotzen ditu. Tronboia ikasten du goi mailan eta zer esan asko ekarriko duen musikaria da, zalantzarik gabe.

Brokenen denak mutilak zarete, beste taldeetan ere gizonaekoa dira gehienak. Nola ikusten duzu hori?

Dezente hitz egin dugu honetaz Brokenen. Taldea egin genuenean goi mailako jazz ikasketetan neskari ez zegoen, adibidez. Ez da kasualitatea. Modu naturalean etorriko dela uste dut nik, baina oso zaila egiten zait soluziobide bat planteatzea. Gazte jendearengan, hala ere, ikusten dut jada zerbait desberdina ari dela gertatzen. Chill Mafian pisu ikaragarria du Sara Goxua DJak, nahiz eta nabarmendu nahi ez izan. Kinbonbon erdia eta erdia daude, Skabideanen pausoa eman zuten Black Birdseko hiru neskak sar-

tuz, Burutik taldean ere badira neskak...

Orain zerbait bultzatzeko beharra ikusten duzu?

Iruñerrian gauza baten behar handia dugu: sindikatzea. Ez diogu geure buruari onartzen langileak garenik. Hain da prekarioa egoera, ze batzuetan ez dakigu ezta zer egin behar den kontzertu batengatik kobratzeko.

Musikaren aldetik ez dakit. Gauza batzuk behar dira, baina gertatzen ari dira. Gauza *guapo*enei eutsi behar diegu egonkortu daitezen eta beste toki batzuetan erreplikak izan ditzaten.

"Katebegia" disko berriaz zer duzu esateko?

Borobilena dela nire ustez. Aurrekoetan airean izan diren ideia asko honetan mamitu direla iruditzen zait.

Ikusten dut New Orleanseko gaur egungo taldeen estiloa eta eraginak erabili ditugula inoiz baino hobeto, euskararen tradizioarekin eta komunitatearekin dituen loturak oso *guapo*ak iruditzen zaizkit eta inguruan dugun gazte jendeak nola parte hartu duen izugarria iruditzen zait. Biniloan bakarrik aterako da, baina ez dakigu noiz. Orain partekatu dugu sare sozialetan. ●



Euroak 20 urte



MIKEL ZURBANO
EKONOMIALARIA

Hogeigarren urteurrenaren karira euroguneko finantza ministroek euroaren aldeko agiri bateratua kaleratu dute eta emaitza harrigarria izan da: ez da ezer gertatu. Ez da izan ez aldeko ez aurkako ahots sendorik. Paradoxikoa dirudi noiz eta pandemiaren ekonomiari aurre egiteko diru politika hedatzaileari esker euroaren proiektua sendotu egin denean. Munduko bigarren txanpona da dolarraren ondoren, eta barne merkatuko elkartrukeen kostuak leundu ditu, zalantzarik gabe.

Baina, ezin dugu ahaztu aurreko hamarkadan doikuntza politika zorrotzek eragindako kontrako haizeak euroaren krisi larria ekarri zuela. Hain ataka estua bizi izan zuen euroak 2010, 2012 edo 2015 urteetan, ezen Stiglitz eta Krugman nobel saridunek bere desagerpena iragarri zuten.

Gogoan izan behar dugu, euroa ez zela sortu ekonomia eta diru batasunaren ohi-ko irizpideetan oinarriturik. Euroak ez du estatu bat bere arkitektura sustengatzeko, ezta altxor orokor bat edo aurrekontu orokor bakarra. Europako Banku Zentrala diru politikaren jabe da, baina zerga politika komunik ez dago. Hori ezean, zaila da ekonomia integrazioak sortutako desberdintasunak lausotzea. Bankuen zein finantzaren arloan ere ez dago merkatu bakarra. Arkitektura instituzionalaren gabezia horiek euroa ataka larrian ipini izan dute, eta hala ere txanpon bakarrak iraun badu, euroa bera Europako Batasuneko proiektu

Arkitektura
instituzionalaren
gabezia horiek euroa
ataka larrian ipini
izan dute, eta hala
ere txanpon bakarrak
iraun badu, euroa bera
Europako Batasuneko
proiektu politikoaren
gunea delako izan da

politikoaren gunea delako izan da. Europako Batasunaren integrazio politikoaren prozesuan eliteek ez dute bide federalaren alde egin. Hori gabe, integrazio gradualagoa lehenetsi izan da, eta bide honetan urrats bat izan da diru batasuna.

Euroaren gabeziak estaltzeko, txanponen trukearen kostuak eta debaluazioaren arriskuak uxatuta, ekonomia integrazioaren helburua lortuko zela esan ziguten bere sustatzaileek. Horrek mugaz gaindiko merkataritza zabalduko zuela zioten, prezioak egonkortu, inbertsioa handitu eta produktibitatearen igoera sustatuko omen ziren. Ondorioz, herritarron bizi mailan eta

herrialdeen ekonomietan konbergentzia emango zela gaineratu zuten. Hots, euroak Europako Batasunaren alemanizazioaren onurak sustatuko zituen halaberrez.


Hogei urte eta gero asmo horietako gehienak bertan behera gelditu dira. Bi hamarkadetako euroguneko barne merkataritza %10 igo da soilik eta, aldiz, munduko merkataritzaren hedakuntza %33koa izan da. Areago, Alemania eta eurotik kanpo dauden Europako Batasuneko hiru herrialdeen (Polonia, Hungaria eta Txekia) arteko merkataritza %63 igo da. Inbertsio produktiboaren arloan antzeko emaitza errepikatzen da. Alemaniako zuzeneko atzerriko inbertsioaren zati handiena eurotik kanpo dauden Europako ekialdeko herrialdeetara bideratu da. Beraz, inbertsio eta produktibitatearen arloan eurogunean dibergentziak gora egin duen bitartean, eurotik kanpo dauden Europako Batasunekoekin konbergentzia prozesua nagusitu da. Herrialde arteko antzeko bilakaera kontraesankorra egiaztatzen da biztanleko errentaren maila alderatzen badugu.

Atzerako begirada batean, euroaren konbergentziarako promesak huts egin du eta eurogunean kontrarako bidea eman da hegoaldeko eta guneko herrialdeen artean. Errealitate horrek lotura estua du arestian aipatutako euroaren arkitektura instituzionalarekin. Etorkizun hurbileko digitalizazioarena erronka anekdota hutsa da aipatutako gabezia estrukturalak mahai gaineratzen dutenaren aurrean. ●

Gazteriaren “barne espazioaz”



KATIXA DOLHARE-ZALDUNBIDE
LITERATUR ZALEA



PAULA ESTÉVEZ

Musukoa ezartzera behartzen gaituzten garai hauetan, gogora etorri zait Henri Michaux olerkari frantsesaren testu bat, *Tatouages* (tatuaiak) izenekoa, *Ecuador* bidaia liburuan argitaratu zuena 1929an (Gallimard). Horretan, autoreak adierazten du “oihaneko Indioak” miragarriak direla: “Turkoek” bezalaxe ulertu dute giza aurpegi soila berez “lizuna”, “ez sana” eta “basatia” dela, eta usaia hartu dute begitartea tindatzeko adiskideen etxera bazkaltzera joatean. Gizarte horietan, bisaia beztitzen da espiritualago eta umilago agertzeko besteen aurrean, eta norberaren “barne espazio” intimoa kanporaturik erakusteko, hurkoaren errespetuz. Michaux segur zen aurpegi tatuaiak Mendebaldeko gizartean ere hedatuko zirela, baina ez, mende bat berantago, maskarak dira ezarri aurpegiak estaltzeko, eta horien giblean gordez gure burua, bata besteari ezkutatu diogu gure “barne espazioa”, jendetasunez baino gehiago beldurrez eta menpekotasunez.

Herstura horretan, are loriagarriago zait ikustea artista gazteek ez dutela dudarik beren “barne espazioak” denen bistara hedatzeko, bihotz-zabaltasun osoz. Garazi aldean bereziki, azken urte eta hilabete hauetan, nasaiki partekatu

du bere baitako aberastasuna gazteriak, denon gozamenerako.

Pentsatzen dut hemen Iribarne ahizpei eta beren lagunei: Leire Iribarne distirantak bizipoza eta maitasuna zoragarriki zabaldu du hainbat musika proiekturen bidez, batez ere Diabolo Kiwi talde funkyarekin, Amaïur Ephher, eta Julen eta Allande Etxeberri adiskideekin. Maia Iribarnekin Paxkal Irigoienekin eskainiko digu *Bañolet* seriea, Xofaldia Produkzioak eta Kanaldudek ekoizturik; 2021eko Durangoko Azokako Sormen beka jaso du telesail horrek, eta jadanik eskuragarri da *Bloñ*, *Bañolet* kantuz diskoa, filmaren soinu banda. Eta bestalde, hor dugu ere Maiak, Amaia Hiriartek eta Elena Hairak osatu hirukotearen *Habia* disko aparta.

Izendatu nahi nituzke ere bai bi idazle gazte: Amaïur Ephher, lehenik, Maiatz argitaletxean *Profeten iruzurra* plazaratu duena 2021eko otsailean. Liburu zapartatu horrek Alexander funtzionarioaren gorabeherak kontatzen dizkigu –gora baino gehiago, beherak–, ironia beltzez eta arraileriaz zorrotzu estiloan. Ephherrek jakitate sozial, filosofiko eta politiko handia erakusten du, eta irakurlea gogoarazten zorionaz eta etsipenaz, bizitzaren bilakaeraz eta etikaz, bi irri-

barreraren artetik. Hausnarketa satirikoen bideratzeko, nahasten ditu eleberri, saia-kera, poesia eta antzerkiaren berezitasunak, obra sailkagaitza eta ustekabekoa eskainiz.

Xan Idiart donazahartar gazteak, berriz, plazaratu du *Teresaren mendekua* ipuin bilduma Elkar argitaletxean, Iparluma sailean, 2021eko buruilean. Talentu narratibo izugarria erakusten du Idiartek, giro franko bereziak sortuz, pertsonaia ikaragarriak biziaraziz, eta gain-gainetik, intriga harrigarri baino harrigarriagoak asmatuz. Istorio bakoi-tza testuinguru arrunt edo errealistan hasten da, Gipuzkoan edo Garazin, eta tipus tapas, ti-tau, ikaragarriko bihurtu-nea hartzen du kontakizunak, suspense hagitx jasangaitza eraikiz, eta irakurlearen irrika hondarrean beti manera txundigarrian asez. Idiartek gainera, maisutasunez darabiltza hiztegi oso aberatsa eta hizkuntzaren sotiltasuna.

Gogo-bihotzak, zirrarak eta sentiberratasuna bata besteari ezkutatzera bultzatzen gaituen jendarte honetan, sanotasun beldurgarriaren izenean, milatan eskertzekoa da bere “barne espazioa” oparitzen digun gazteria, espirituali be-zain umilki, Michaux-k aipatu Indioek bezala, guzion salbagarri. ●

Erretiroa?



ENEKO OLASAGASTI
ZUZENDARIA ETA
GIDOILARIA

Ez dizut ukatuko pena pixka bat ematen didanik kateak deskatalogatuta edukitzea, badakit bizilegea dela. Onartzen dut tristura puntu batekin, baina trauma handirik gabe” (Xabier Euzkitze).

Batzuetan gertatzen da buruan bueltak dabilkizuna bat-batean idatzita ikustea. Horixe bera gertatu zitzaidan Xabier Euzkitzeren hitz horiek irakurri nituenean. Hitzez hitz sinatuko nituzke oraintxe hor esandakoak. Gai bera aspaldi nerabilen bueltak baina ez dut orain arte sentipen horiek hitzetan ipintzeko ausardiarik bildu. Ziurrenik gure herri maite honetan lotsa handia daukagu hainbat gauzez hitz egiteko orduan. Ez dugu gure alde tristea azaldu nahi izaten, badirudi behartuta gaudela zoriontsuak garela esatera. Kanean aspaldi ikusi gabeko lagunarekin topo egitean bezala. Zer moduz galderari beti “ondo” erantzutea, nahiz eta barrutik kristo bat egin egon, banatu berria eta lan (diru) kontuekin larri. Baina erantzuna beti “ondo”, gezur galanta bada ere. Zergatik ez gara egia esatera ausartzen? Lotsagatik, gure barruak aireratzen ez hasteagatik, besteari bost axola zaiolako agian...

Adin batetik gora dugunoi gertatzen ari zaigu, merkatutik kanpo geratzen ari

gara. Gizarte honek gazteen gorazarrea egiten du. Gure arloan diskriminazio positiboa dago gazteen alde, emakumeen alde, emakume gazteen alde... Eta ez nago kontra. Baina ofizio honetan bizitza osoa pasa dugunok ez al dugu gure lan-bizitza bertan bukatzea merezi? Gainera, eskarmentua bilduta daukagu, esango nuke egun gazte garaian baino hobeto ezagutzen dugula ofizioa. Gazte garaian ausardia bai baina ezagutza gutxi. Gure belaunaldiari zerotik hastea tokatu zitzaion gainera, eta orain gure ibilbidearen azken zatian sartu garenean, zerora hurbiltzen ez ote garen ari susmoa hartzen ari naiz. Eta bitartean etxeko tiraderak bidean geratu eta geratzen diren egitasmoz betetzen darrai. Adin batera iritsi zaren seinalea da tiradera horretan daudenak gauzatu dituzunak baino gehiago direnean.

Nik ez dut erretiroa aukeratu, baina konturatzerako gertuago gaude jubilaio adinaren ataritik, nahiz eta lanean segitzeko gogoak ez diren desagertu. Eta horri gehitu behar zaio gure ofizioaren ezaugarriengatik asko kotizatu ez dugunez pentsio ziztrin batekin konformatu beharra. Euzkitzek dioen bezala: traumarik ez baina bai tristura puntu bat. ●

Gorputz ziklikoak



EVA PEREZ-PONS
ANDRADE

Hamabost urte izango dira hilekoa dudala, eta ausartuko nintzateke esatera oraindik ez naizela ohitu hilerio nire gorputzak pairatzen dituen aldaketetara, hilekoa ez baita soilik egun batzuk irauten dituen odol fluxua.

Zintzoki aitortuko dut nire burua denbora luze ibili dela sexu-genero sistemaren narratiba hegemonikotik at dagoen *bollera* transfeminista identitate idealari heldu nahian, baina gorputzak intermitenteki ihes egin diola. Ze, batzuetan, kontrolaezina da. Mingarria da arrazionaletik emozionalerako salto hori. Are, borroka horren erdian zure gorputzari aukeratu eta nahi

ez duzun prozesu zikliko baten ondorioz titiak puztu eta aldakak zabaltzen zaizkionean. Mingarria eta nekagarria.

Ezin gara egoera egonkorretan definitu, batzuetan fuerte gaude eta beste batzuetan ez horrenbeste, zaurgarritasun horretan ulertu behar ditugu gure gorputzak, eta baita gure identitateak ere. Ulertu behar dugu generoa naturala ez den era berean, gorputza ere ez dela naturala, eta beharrezkoa dela hari entzutea. Guztiz zilegia baita ongi sentitzeko hautuak hartzea, nahiz eta jakin betirako izango ez direla, helburua prozesua delako, eta ez emaitza. ●

Nork nori zer berri



INMA ERREA
IDAZLEA

Ni ohartuta, bizpahiru alditan gertatu zait, eta orotan ezin sinetsirik gelditu nintzen: nola azaltzen ahal zidan batek berea izanen balitz bezala ez oso aspaldi nik hari adierazitako ideia edo argudio bera?

Hain harrigarria dirudi, hain sinesgaitza, non gertatu zitzaidan guztietan isilik gelditu bainintzen, mutu: nik neuk zalantza egin da ideia edo argudio hura benetan nirea zen edo haluzinazio baten biktima nintzen.

Baina izena duen oro badenez –eta izena ingelesez bada, izatea ziurragoa da–, aurkitu dut fenomenoaren berri: *hepeatinga* –a omen, gizon batek emakume bati egiten dihonean –kasu gehienetan, antza– eta *wheapeatinga*, zuriak beltzei egiten dieteanean. Niri gizonekin gertatu izan zait.

Fenomenoaz irakurri ditudan gauzetan ez da argitzen *hepeatingean* ari dena jabetzen ari denetz zertan ari den. Jakina, lehia-kortasun handiko giro eta bilkuretan guztiz oharturik jardunen dute egileek, jokabide hori (inoren ideia bat aditzea ageriko garrantzirik eman gabe, eta geroago ideia hori norberarena balitz bezala baliatzea) oso

Zer mekanismok
bultzatzen du pertsona
bat beste bati aditutako
zerbait (ez edozer,
baizik eta zerbait
orijinala, berritzailea
edota interesgarria)
bere egitera kasik
ohartu gabe?

errentagarria izan daitekeelako.

Baina ez da beti horrela. Niri gertatu zitzaidanean ez zegoen ezer jokoan –solaskideen egoez gain–, eta horrek harrigarriago bihurtzen du jokamoldea. Horregatik iruditzen zait hori egiten dutenak oharkabea ari direla batzuetan. Eta hala bada, galderak datoz ausarkian: zer mekanismok bultza-

tzen du pertsona bat beste bati aditutako zerbait (ez edozer, baizik eta zerbait orijinala, berritzailea edota interesgarria) bere egitera kasik ohartu gabe? Eta zergatik da ohikoagoa gizon batek egitea emakume baten ideiekin, edo zuri batek beltz batenekin –oro har sozialki edo hierarkikoki ahaltsuago-edo jotako batek ustez ahulago den batenekin–?

Galdera horiek ez dira erretorikoak, eta hipotesi kezkarriak ekar ditzakete: hain errotikoak dira guregan genero-, arraza-, gizarte- edota klase-ezberdinkeria, hain sustraituta ditugu inkontzientean desperekotasunak, non batek bere buruari baimen erabatekoa ematen ahal dion, eta lasai egin, beste pertsona baten ideien jabe egiteko?

Iturria aipatu gabe beste baten ideia errepikatzen duenak inkontzientearen sakonenean al du gorderik bere burua bestearena baino estimu handiagoan duelako sinesmen hori?

Eta noraino ote dago gizateriaren historia halako mikrolapurretez bete, noraino dugu barneraturik, normalizatuta, hala-koen zilegitasuna? ●



Herrialde Katalanak: hiru gobernu aurrerazaleak, hizkuntzazko murgiltze sistemaren ehorzleak



VICENT PARTAL
KAZETARIA



Artikulu hau VilaWeb-ek argitaratu du eta
Creative Commons lizentziari esker ekarri dugu

Egoera ezohikoa bezain iraingarria da. Balearretako parlamentuan, eztabaidatzen ari dira erkidego honen historian lehena izango den hezkuntza legea, zeina hil honen (otsailaren) 22rako onartu behar den. Hizkuntzari dagokion atalean, hortxe lehenengo ezustekoa: Jaume Matas PPKo gobernuburuak aspaldi hartan onartutako minimoen dekretu polemiko hartan oinarritzen da. Ondorioz, eskola orduetan katalanak eta gaztelaniak %50na ordu izango dituzte, ordu kopurua erdira banatuta, beraz. Zirrikitu bat uzten du irekia, klaustro borrokalariren batek katalanaren orduak gehitu nahiko balitu, horretarako aukera izan dezan. Era horretara, Irletako gobernu aurrerazaleak, zeinetan parte diren Més per Mallorca abertzaleak, lege izaera emango dio PPK katalanaren murgiltze sistemaren aurka asmatu zuen neurriari.

Eta zer gertatzen da Valentziako Erkidegoan? Ikasturte honetan, “hizkuntza aniztasunaren lege” bezala ezagutzen den 4/2018 legean jasotako neurri linguistikoak indarrean sartu dira bigarren hezkuntzan, eta horrek eragin du katalanaren irakaskuntzan atzera egitea eskolan eta institutuetan. Zehazki esateko, Hizkuntza Anitzeko Heziketa Programaren erruz, katalanez ari ziren eskolek gaztelaniaz ere aritzera pasa behar izan dute, horretara behartu dituztelako, PPK eta Ciudadanos-ek nahi zuten bezala, eta katalan hutsez ari ziren eskoletan %40a gaztelaniaz da orain. Eta Balearretan

Esango diguzue zein
panorama dugun,
beren burua aurrerazale
eta abertzaletzat
duten hiru gobernu
autonomikoe, hirurek,
PPk diseinatutako
murgiltzearen kontrako
politikak ahalbidetzen
badituzte

bezalaxe, PPK egitea lortu ez zuena egin du gobernu aurrerazale batek, zeinetan parte hartzen duen Compromis alderdiak, eta bere ardurapean duen Hezkuntza Saila.

Eta hori guztia nahikoa ez, eta Printzerrian ere ERC eta Junts alderdiek osatutako gobernu aurrerazale eta independentistak iragarri du hezkuntza plan berri bat idazten ari dela. Plan berria, zeina Espainiak ezarri duen %25eko inposaketari aurre egiteko erreazio gisa agertzen den, baina praktikan botere judizialak agindutako murgiltze sistemaren heriotza ekarriko duen.

Egoera, beraz, katastrofikoa da. Hizkuntzaren ikuspegitik ez ezik, baita ikuspegi politikotik ere. Esango diguzue zein panorama dugun, beren burua aurrerazale eta abertzaletzat duten hiru gobernu autonomikoe, hirurek, PPK diseinatutako murgiltzearen kontrako politikak ahalbidetzen badituzte. Zertarako balio du, beraz, haiei botoa emateak?

Hainbesteko adostasunak azalpen batzuk behar ditu. Eta kasu honetan beldurraz hitz egin behar dugu, Espainiako erakundeek egiten duten presioa izugarria da eta inolako lotsarik gabe animaleko kanpainak egiten dituzte herritarren atxikimendua lortzeko. Baina, arrazoi horrez gain, uste dut esan egin beharko genukeela, baita ere, maisu-maistren sektore batek dimititu egin duela. Eta, bereziki azpimarratu beharko genuke, halaber, gazte abertzaleen belaunaldi oso batek boterea dastatu berri duela, boterearen besaulkietan eroso sentitzen dela eta ahanzi egin duela urte batzuk lehenago defendatzen zutena. Eta, areago, hitz egin beharko genuke, baita ere, haien ezgaitasun politikoaz eta hasiberrien hutsegite izugarriez. Orobat esan behar da abertzale eta independentista askok hanka sartze handia egin dutela azken urteotan gure nazioaren osaketan katalanak duen leku zentrala gutxietsita. Premiazkoa da, beraz, “teorizazio” interesatu horiei maskara kentzea, salatzea, haien aurka borrokatzea eta zuzendu araztea. Ziurrenik, lehentasunez egin beharreko lana dugu hau. ●

UKRAINAKO GERRA

Eta Errusiak gerra zabaltzea aukeratu du

Ez du gerra abiatu. Gerra egon bazegoelako Ukrainan, 2014ko estatu kolpearen ostean, fokua Donbassen zuela. Edonola ere, Vladimir Putinek gerra aukeratu du, mugarri arriskutsua ezarri eta zuhurtasunari jarrera oldarkorrak hartu dio gaina, gerraren arduradun nagusi bilakatuta. Askok ez genuen uste, Donbassetik kanpo, esku-hartze militarra egitera ausartu eta kontakizunaren batailan (hori ere egon badagoelako) arrazoiaren zati bat emango zionik nori eta Iraken "suntsipen handiko armak daude" teoria entzutetsuaren bozeramaile nagusietako bati, Joe Bideni.

 AXIER LOPEZ

Ukrainan zabaldu da gerra, eta ez Donbassen bakarrik. Horrek guztiz aldatu du panorama. Putinen hitzetan, Ukraina ez omen dute inbadituko, Ukraina "desmilitarizatu" eta "desnazifikatu" nahi dute. Hau da, haien begitan zilegitasunik ez duen gobernuan aldaketa eragin nahi dute, Ukraina NATOn sar ez dadin, Krimea aitortu dezan, eta batez ere, NATOren ekialderako hedapena ezbaian jartzeko. Errusiak ez du Ukrainan geratzeko asmorik, dio Putinek, baina gerra presio estrategia gisa ulertuta, ez badu lortzen nahi duena, zer? Uste baino erresistentzia armatu handiagoa piztuz gero, zer? Kontua da Errusiak irabazi egin behar duela, eta Ukrainak "bakarrik" saihestu behar duela erabateko porrota. Gerra bat piztea errazena da, eta behin muga hori igarota, haren garapena kontrolaezin bilaka daiteke.

Batzuek diote zortzi urtez luzatu den gerra bati (zure herriaren parte sentitzen direnen aurkakoa, errusiarren ikuspegitik) amaiera emateko era bakarra alde baten gaitasun militarra deuseztatzea dela. Eta bai, Ukrainak menpean zi-

tuen Donetsk eta Luhanskeko zenbait zonaldeetatik atzera egiten ari da, Donbasseko gerra ezagutzen genuen bezala amaitu egin da, baina gerra bat itzaltzeko konponbidea erasoaldia handitzea, herrialde bateko hiri nagusi guztietan bonbak zartatzea, eta kaleak soldaduz eta tankez jostea... Hori inork beretzat nahi ez duen egoera da. Ez Ukrainan, ez inon.

Momentuz Errusiak lortu duena da European maila honetako gatazka baten protagonista nagusia izatea. Eta mezu argia bidali du nazioartera, eta AEBei zuzenean: "Ez zarete munduko Polizia, nire eskariak ez badituzue maite, indarrez betearaziko ditut". Jarrera oldarkor horrek aukera eman dio NATOri, lehen ez bezala, batuta agertzeko. Errusiaren aurkako zigor ekonomikoen tamaina eta eraginkortasuna horren arabera izango da.

Orain hobeto ulertzen da Putinen azken hitzartzeetan zergatik eskaini zion hainbeste lerro Ukrainak estatu gisa zilegitasunik ez duela argudiatzeari. Putinek oso argi hitz egin du Sobietar Batasuna osatzen zuten lurraldeen



Gerra eta industria militarren aurka kolektibo feminista eta antimilitaristen mobilizazio bat Bilbon, 2020an.

ECUADOR ETXEA

historiari buruz. Orduko Errusia desegin izana bere erara azaldu du. Inperio errusiarrak desagitea errorea izan zen eta arazoa boltxebikeek autodeterminazio eskubidea onartu izana. Putinek barruan daraman antikomunismoari bide emanez, Ukraina azaltzen digu "boltxebikeen asmakizun" gisa, eta horrek eratorritako, "Ukraina arazo da Errusiarentzat gaur egun".

2014ko Ukrainako estatu-kolpeaz geroztik, Donetsk eta Luhanskeko herri-milizek gerra gal ez zezaten bermatu du Errusiak, baina ez dira haratago joan. Moskuk orain jarrera aldatu egin du. Lehen, Donbasseko gerra -nazioarteko ahaztua eta alboratua- amaitzeko konponbide bat negoziatzera behartu nahi zuen Ukraina. Hori ez da gertatu eta gerra hori, denboraren poderioz, gaur

egun nazioartean askoz ere zabalagoa den gatazka bihurtu da. Minskeko akordioek estatus berezia aitortzen zioten Ukraina barruko Donetsk eta Luhansk herriei. Ukrainak uko egin zion akordioak ezartzeari eta berehala NATOrekin bat egitea eskatu zuen. Washingtonek jokabide hori babestu zuen, Mendebaldeak Ukrainako Indar Armatuak indartu zituen, Errusiak gatazkaren azken kapitulu honetan oldartuta... eta hemen gaudela, bonbardaketen irudiei begira.

Donbasseko gerra, ezagutu genuen bezala, amaitu egin da. Azken zortzi urtetan ehunka milaka lagunak alde egin behar izan dute etxetik eta milaka hildako -14.000 kalkulu batzuen arabera- eta zauritu utzi ditu Donbassen. Zortzi urtez bere herriari eraso egin eta bonbardatu duten gobernuen agindupean, eta egun hauetan bakea aldarrikatzen ari den nazioarteko komunitateak ia zalapartarik atera gabe. Baina, jakina, Donbassen osatekoak ez du zertan hobe izan: bonbak, tropak mugak zeharkatzen, politikariak testosterona gurutzatzen diskurtsoetan... Batzuek 2008ko Errusiaren esku-hartzea Georgian aipatzen dute gidoi baten bila. Orduan Errusiak Georgiako azpiegitura militarra azkar suntsitu zuen, hegazkin-baseak menpean hartu zituen eta, nagusiki, Abkhazia eta Hego Osetia lurraldeen independentzia ziurtatu eta onartu zuen, Georgia okupatu gabe. Izan liteke, baina Errusiaren helburua ez da Luhansk eta Donetsk kontrolatzea, ezta Ukraina osoa ere, baizik eta nazioarteko segurtasun-eskema berri bat negoziatzea eta ezartzea. Eta hori askoz korapilatsuagoa da, eta arriskutsuagoa gerra piztuta egonda.

Rafael Pochek azpimarratu bezala, 1990eko hamarkadatik Errusiaren inguruan AEB eta NATO ezartzen ari diren setio militarra probokatzailerak eta zentzugabea da. Eta mehatxu estrategia hori indargabetzeak asko lagunduko luke. Baina horrek ez du justifikatzen gerra berri bat piztu izana. Arma nuklearrak dituzten jokalariekin Risk joan aritzea arriskutsua da oso. Logika militarrek, datorren lekutik datorrela, interes ekonomiko eta geoestrategikoak lehenesten ditu bizitza duinaren aurretik. Horregatik, Gerrari ez! aldarri zaharra aireratu beharko da berriz ere (Errusiako eta munduko hiri askotan egin bezala). Gerrarik ez Donbassen, Ukrainan, Sirian, Yemenen, edota Etiopian. Eta aukeran, beste inon ere ez. ●



DANIEL LEAL / AFP

Gerra “humanitarioak” berriro

Azkenean Errusiak eraso egin dio Ukrainari eta ez edonola, inbasioa hasi du. Ameriketako Estatu Batuak zuzen zeuden? Edo guk orriotan azaldu genuen “autobete den profezia” al da? Bata ala bestea izan, erasoaren arduradunak Putin eta bere gobernua dira. Baina lau hilabeteren ondoren ikusi

dugu Gerra Hotzean ez bezala, oraingoan AEBen negoziatziorako gogoak ez direla garai batekoak. Washingtonen eta Moskuren artean ez da benetako negoziatziorik izan, oiloaren jokoan aritu dira eta askok pentsatzen genuenaren kontra Kremlinak esku-hartze militar handia hasi du.

Berritasuna ez da esku-hartzea bakarrik, baizik eta modua. Posibilitateen artean aipatzen genuen Georgian 2008ko gerran gertaturikoa errepikatzeke aukera zegoela. Hau da, Ukrainak Donbassen kontra eskala handiko eraso hasiko balu, Errusiak azkar erantzungo lukeela, Ukrainako armadaren kontrako erasoekin, instalakuntza militarrek suntsituz eta portu eta aireportu estrategikoak kontrolatuz. Gutxi gorabehera horixe zen gertatzen hasi zena Ukrainako inbasioaren lehenengo egunean. Errusiak operazio militarra bukatu zuenean Georgian, erretiratu egin zen, hori bai, Hego Osetiak eta Abjasiak kontrolatzen zituzten lurralde eremuak zabaldua.

POTENTZIEN ARTEKO HARREMANETAN, INDARTSUEENAREN LEGEA

Oraingoan, aldiz, prozedura bestelakoa izan da. Une historiko triste horietako bat bizi dugu, hain zuzen ere, 1999an NATOk Jugoslaviari eraso egin zion antzeko unea da egungoa. Orduan, Mendebaldeak, eta bereziki AEBek, polo bakaurreko mundu hartan botere hordituta, nazioarteko legedia hausteko erabakia hartu zuen. Eta ez ezkutuan, normalean horrelakoak egiten diren moduan, baizik eta aurpegia emanez era harropuztean. Errusiak gauza bera egin du.

Kremlinak eta bereziki Putinek botere hordituta eta harropuzkeriaz, nazioarteko politikan jokalaria zuhurra zen



Errusiaren portaera aldatu du, erreaktiboa izatetik proaktiboa izatera igaroz. NATOren gerra “prebentiboen” eta “humanitarioen” doktrinak besarkatu eta erasoari ekin dio. Orain hobeto ulertzen da Scholz Lehen Ministro alemaniararekin emaniko prentsaurrekoan 1999ko Jugoslaviako erasoari eginiko erreferentzia. Aitzakia zazpi urtez luzatu den Donbasseko gerra eta drama humanitarioa da. Hemen dago arriskua, nazioarteko legedia oso urratuta

zegoen eta Putinek hartu duen erabakia honekin erabat lurperatuta dago. Eraso militarren inguruko nazioarteko legediaren amaiera hori 1999an hasi zen, trantsizio luze bat izan da, erdi bizirik zegoen, batzuetan funtzionatzen zuen eta beste askotan ez (Irak, Afganistan, Libia, Siria, Yemen...); gaurtik aurrera esan genezake mundu hori amaitu dela eta potentzien arteko harremanetan indartsuenaren legea baino ez dela nagusituko.

SEERGEY BOBOK / AFP

1922

Lehen Mundu Gerran lurraldea zatiturik eta hainbaten agintepEAN egon ostean, Ukrainak Sobietar Sobietar Errepublikak Sozialisten Batasunaren sorreran hartu zuen parte.

1932

Stalinek nekazal lurren kolektibizazioa hasi zuen 1920ko hamarkadan. 1932 eta 1933an Holodomor izeneko gosetea jasan zuten ukrainarrek eta milioika hil ziren.

1941

Alemania naziak Ukraina eta beste sobiet errepublikak inbaditu zituen Bigarren Mundu Gerran.



Kieveko borrokaldia, 1943.

1991

Ukrainak independentzia erreferendumean SESBtik irtetea erabaki zuen, %80ko aldeko botoekin.

2004

Iraultza laranja deiturikoarekin Viktor Justxenکو presidente jarri zen, hauteskundeak berriz egin ondoren. Herrialdea pribatizatu eta hurrengo urteetan NATOrekiko lehen hurbilketa egin zuen herrialdeak.

ZER GERTATUKO DA ERRUSIARI EZ BAZAIZKIO PLANAK ONGI ATERATZEN?

Baina buelta gaitezen Ukrainara. Kremlinak abiatu duen operazioa ez da bakarrik gerra "humanitarioen" beste atal bat protagonista berri batekin. Ez, arrisku gehiago dago. Ukraina ez da Georgia. Georgian paperean irudikatu zuten operazioa gutxi-asko perfektu burutu zuten. Baina Ukraina handiagoa da eta erresistentzia handiagoa izan daiteke. Ukrainar armadaren baliabide militarrek kontrolpean hartu edota neutralizatzeko operazio militarra omen da eta ez ei du zibilen kontrako erasorik egingo; gogoratu dezagun 1999an NATOk Jugoslaviari eraso egin zionean, zubiak, garraiobideak, telebista, erietxeak eta, oro har, zibilei nagusiki egin ziela eraso. Ikusiko dugu zer gertatzen den Ukrainan, baina errusiarrek paperean dutena ateratzen ez bazaie, zer egingo dute? Gerra irabazteko potentzial handia dute bai, baina erresistentzia baldin badago, errusiar armadak azkenean eskuak odollez asko zikinduko ditu. Era berean baja militar ugari izan ditzake, eta horrek arazoak sor diezazkioke etxean.

Gerrak nola hasten diren jakitea baztuetan ez da erraza, baina garbi dagoena da ez dagoela jakiterik nola bukatuko diren. Gainera, Errusiak Mendebaldetik kanpo zuen ospe diplomatikoa eztanda-razi berri du. Azken asteetan, krisiaren gorakadan gustura sartu den arren eta



ultimatumak eman dituen arren, beti baztertu du Ukrainan eskala handiko okupazio militarra. Oraindik esan ahal izango dute Georgiako 2008ko operazioaren antzeko zerbait baino ez dela, gutxi-asko horrela aurkeztu dute, baina nork sinetsiko die azken asteetan esandakoaren ostean? Aurreko asteetan, gerra agertokian bi hipotesi nagusi aipatu

genituen. Lehen, Donetsk eta Luhansk kontrolatzen dituzten lurraldeak segurtatzeko Errusiak operazio militarra egitea eta muga horietan geratzeara. Bigarrena, errepublikek kontrolatzen dutena segurtatu ondoren, Donbass osoa bereganatzeko eraso egitea, Ukrainak kontrolatzen dituen lurraldeak hartuz. Eraso militarra Donbass osoa kontrola-

2010

Viktor Yanukovitxek hauteskundeak irabazi eta Ukrainak Errusiarekin zituen loturak berregin zituen.



2014 otsaila

Kievetako Maidan plazan eta beste hainbat tokitan protestak Ukrainak Europar Batasunaren ondoan egotea eskatzeko. Parlamentuak Yanukovitx kargutik kendu eta ihes egin zuen herrialdetik.

2014 martxoa

Erreferenduma Krimean Errusiarekin elkartzea eskatzeko. Apirilean, Donetsk eta Luhanskeko errusiar zaleek Kievetikiko burujabetza aldarrikatu eta Ukrainarekin gerra hasiko da Donbass eskualdean.



2014 iraila

Minskeko protokoloa sinatu zuten Ukrainak, Donetsk eta Luhanskeko oblastek, eta Errusiak, eskualde errusiar zaleei autonomia gehiago emateko erreferenduma hitz emanez. Hala ere, gerrak jarraituko du.

2019 maiatza

Volodymyr Zelenski presidente hautatuko dute Ukrainan. Vladimir Putinekin adostuko du bake prozesuari berrekitea.



Ukrainarrak Hungariara bidean gerratik ihes, otsailaren 27an.

BERNADETT SZABO / REUTERS

tzeko operaziotzat aurkeztu dute, baina, gauden puntuan egonda, lehenengo hipotesia baztertuta eta bigarrena Kremlinaren ahotan egonik, ezinbestean bazterrean zegoen beste hipotesi bat aipatu behar da: gerra garatu ahala Errusiak ez badu lortzen nahi duena –irudi duenez, Donbass osoa kontrolatu eta Ukrainako estatus neutrala segurtatzea– orduan oso posible da Errusiak Donbassi anexionatzea eskualde horretakoak ez diren lurralde batzuk.

Hain zuzen ere, hipotesi hau, Heinz Brill Alemaniako armadak erreserbako teniente koronelarena da. Alemaniako Armada Federalaren Ikerketa eta Presakuntza Bulegoko aholkulari ohia ere

bada eta 2009an aurkeztu zuen Austriako aldizkari militar batean argitaratutako artikulua batean. Han zioen NATO ekialdera zabaltzeak Ukraina eramango zuela NATO eta Errusiaren artean banatzera. Orduan sinesgaitza iruditu zitzaizkidan hipotesia, baina garbi dago militarren errealismoa bezalakorik ez dagoela nazioarteko harremanak interpretatzeko.

Azkenik, sorpresaz harrapatu gaitu asko, Kremlinaren ekiteko moduagatik, proaktibo bezala agertu izanagatik. Batez ere, bazirudielako azken hilabeteetako krisi gorakadaren narratiban Kremlina irabazle izaten ari zela eta, hain justu, azken erabaki horrek Moskuraren sinesgarritasuna hondoratu eta AE-

Bena berritu duelako. Baina ez da hori bakarrik, NATO kohesionatu egingo da eta Errusiak erabaki honekin herrialde post-sobietarretan duen irudia asko higatuko da. Eta noski, bide ez militarretatik Ukrainan eragiteko gaitasuna izateari uko egin dio betiko.

Honetan guztian baina, badirudi Putinek zeresan handia duela, Donetsk eta Luhansk errepublikak aintzatestea iragartzeko hitzaldian normalean erabiltzen ez duen moduko tonu eta irudi zakarra erakutsi zituen. Formak ez zituen zaindu eta haserre zegoela adierazi zuen, diskurtso nazionalista eta antikomunista gogorra garatu bitartean. Horregatik, badirudi, Errusiaren azken urteetako deribak gauza asko azal dezakeela. Errusia inoiz demokrazia izan ez bada ere, geroz eta autoritarioagoa da. Hori azaltzeko aldagai ugari erabili daitezke, horietako bat da Putinek 20 urte baino gehiago daramatzela boterean, agintariak boterean urte luzez aritzen direnean hasieran zituzten trebeziak herdoildu egiten zaizkie eta errealtatearen ikuskera gero eta desitxuratuagoa garatzen hasten dira, botereaz horditurik edo. Horregatik, ez dira kontziente hartzen dituzten erabakiek; ez da bihar edo etzi izango, baina operazio militarra ez bada ateratzen Kremlinak planifikatu bezala, etxean, Errusian, Putini gauzak malda gora jarri dakizkioke epe ertainean.

Ikusiko dugu. ●

2020

AEBek Nord Stream II gasbide proiektuan parte hartzen ari direnak zigortzeko mehatxu egingo dute. Ukraina eta Errusia artean elkarrizketak gasa dela-eta, elkarri isunak kentzeko. Europara ekialdetik iristen den gasaren %58 Ukrainatik igarotzen da.

2021 urtarrila

Zelenskik Ukraina NATOn sartzeko eskaera egingo dio Joe Biden AEBetako presidente berriari. Udaberrian Errusia tropak pilatzen hasten da Ukrainako mugan.

Abendua

Errusiak Ukraina inbaditzeko asmoa duela lehen abisua joko du Bidenek.


2022 urtarrila

Putinek NATOrri eskatuko dio 1997 urte aurreko mugetara erretiratzeko eta hainbat segurtasun eskari helaraziko dizkie AEBei.

2022 otsaila

Putin eta Emmanuel Macron Frantziako presidentearen artean bilera Moskun; gatazka bide diplomatikotik konpontzeko azken saiakera.

Otsailaren 21ean Donetsk eta Luhanskeko herri errepublikak independentzia onartu eta handik bi egunera Ukraina airez eta lurrez eraso egingo dio Errusiak.



Oraindik desagertuak

Iñaki Egañak idatzi berri duen *Objetos perdidos*.

Desapariciones forzadas en el contexto vasco (1956-2010)

(Objektu galduak. Indarrezko desagertuak euskal testuinguruan, 1956-2010) liburuan oinarrituta dago erreportaje hau. Makina bat aldiz hitz egin da ETaren hilketa edo bahiketez, talde parapolizialen edo segurtasun indarren hilketa eta torturez, baina askoz gutxiago desagertuez, eta liburu honek ale bat gehitu dio gai arantzatsu horren errelatoari. Aukera on bat bortxazko desagertuen auziak azaleratzeko.

 XABIER LETONA BITERI

Euskal gatazkaren bueltan indarrezko desagertuak gainean ikuspegi orokor bat eduki nahi duenarentzat informazioz jantzia dator Iñaki Egañaren argitalpena. Hala ere, liburuari heldu eta berehala egin du jauzi lehen kontraesanak orrien artean: euskal gatazkari lotuta batek oroimenean dituen desagertuak eta liburuan sakontasun maila batekin aztertzen diren 24 desagertuen artean jauzi oso handia dago. Horrez gain, munduan barrena izandako beste bederatzi euskal herritarren desagertuak ere idatzi du. Eta liburuak idatzi ondoren ere, beste hiru kasuren berri eman diote.

Kasu batzuk ezagunak dira, beste batzuk ez, baina gehienetan dira berrikuntzak, gutxienez ikerketen oso gainean ez dagoenarentzat; eta mundu bat eskaintzen dio halakoez ezer gutxi dakienari.



Pertur 1976an desagerrarazi zuten eta mobilizazio ugari egin ziren Euskal Herri osoan; argazkian Donostiako bat.

Baina zergatik orain? “Gerra Zibileko desagertuak ikertzen aritu naiz azken 20 urteetan, beraz urratsa naturala iruditut zait, badut adin bat eta desagertuei buruzko datu asko nituen. Zertarako gorde? Dakidana hobeto dago liburu batean. Horregatik da hainbat auziren nahasketa”.

Zehatzago esanda, hiru multzo handi bereizten dira liburuan. Lehen multzo batean hamaika desagertu daude: Jesús Galindez, Pedro Baigorri, José Humberto, Jorge Juan García, Fernando Quiroga, Annie Intxauspe eta Patrick Ly, Eduardo Moreno *Pertur*, Tomás Hernández, José Miguel Etxeberria *Naparra* eta Jean Louis Larre *Popo*.

Bigarren multzoan hamabi herritarren kasuak azaltzen dira, uneren batean desagertuta egon ziren, ustez norbaitek desagerraraziak, baina denborarekin gorpua agertu ziren, batzuk hiruzpalau egunera, hilabetera, urtebetera... edo hamabi urtera –Joxi Zabala eta Joxean Lasa moduan–: Jesús María González Tuitero eta José Luis Martínez, Bernardo Bidaola, Joxean Lasa eta Joxi Zabala, Mikel Zabala, Joserra Asua, José Luis Salegi Txipi, José Luis Geresta Ttoto, Josu Zabala, José María Eizagirre Tapi eta Jon Anza.

Aurreko bi multzoak ez dira horrela bereizten liburuan eta lerro hauen ira-

kurleari desagerketen berri zehatzago emateko erreportajearen egileak bereizitakoak dira. Hirugarren multzoa liburuaren egileak proposatutakoa da, *Beste desagertuen batzuk* kapituluaren, euskal lurretan edo munduan gertatutako euskal herritarren indarrezko desagertuenak direlakoan. Oso izaera desberdineko bederatzi kasu dira: Borja Lazaro, Sabin Llona, Miguel Angel Martínez, Hodei Egiluz, Fidel Equiza, José Ramón Canal, Valentín Parrás, Antonio Varona eta Ignacio Zurbano.

Eta bada azken kasu bat ere, euskal gatazkaren historian oso ezaguna, ETAn izandako satorrik ezagunena izan dela-

Agian desagerketa kasurik ezezagunenak Annie Intxauspe eta Patrick Ly-rena dira, Donibane Lohizunen ikusi zituzten azkenekoz, 1976an, Pertur desagertu baino hilabete batzuk lehenago

ko: Mikel Lejarza *El Lobo*. “Hau ere bai?”, pentsa dezake harriduraz haren historia apur bat ezagutzen duen edonork. Egañak dioskunez, berak ere sartzeko zalantzak izan zituen, eta azkenean sartu du badelako pentsatzen duenik *El Lobo* 70eko hamarkadan atxilotu zutenean, torturatu, Poliziarekin kolaboratzaera behartu eta desagerrarazi zutela. Egañak liburuan azaltzen duenez, hori da hain zuzen gerra zikina eta tortura ikertzen duen Xabier Makazagaren hipotesia. Bere ustez, ordea, eta oro har hori da uste zabalduena, *El Lobo* bizirik legoke eta 70 bat urte izango lituzke. El-karrizketan dioskunez, bizi den tokiaren lekukorik ere badu.

Liburuan agertzen ez diren hiru kasu berriei buruz honakoa azaldu digu Egañak: bat Andrés Lanz Andueza da, Lakuntzakoa. Apaiza zen, Guatemalalara joan zen eta 1980an hango gerrillan ekin zion. 1982an atxilotu, torturatu eta, garai hartan Hego Amerikan oso ohikoa zen moduan, Karibe itsasora bota zuten hegazkin batetik. Beste bi desagertuen izenak ez dizkigu eman, oraindik iker-tzen ari delako, baina Egañak aurreratu digunez, 80ko hamarkadan desagertu ziren, Guardia Zibila mugan edo handik gertu ETaren aurkako operazio bat egi-ten ari zela.



Eduardo Moreno *Pertur*

Desagertua: Hendaia. 1976ko uztailak 23. ETApn-ko buruzagia.



Annie Intxauspe eta Patrick Ly

Desagertua: Donibane Lohizune. 1976ko ekaina.

DESAGERPENEN ERRUDUNAK

Hamaika desagertuetatik bederatzi kasu euskal gatazkaren testuinguruan kokatzen dira, baina ez dago argi nor desagerrarazi zituen. Kasu gehienetan uste da Espainiako Estatuaren estoldak daukela atzean, baina horietako batzuetan ETaren edo bere ingurunearen itzala ere ageri da, eta aurrerago azaltzen den hiru galiziarren auzian itzala baino gehiago.

Naparra, *Pertur* eta *Popo* Larre dira kasurik ezagunenak. Lehen bietan hipotesi nagusia Espainiako Gobernuaren gerra zikinarena da, baina gaur egun ere oraindik askok sinesten du ETak desagerrarazi zituela. Egañak sinesgarritasun handiagoa ematen dio gerra zikinari, eta argi azaltzen du zergatik. *Naparra*-ren kasuan, uste berekoa da *Naparra* kasu irekia liburuan auzia ikertu duen Jon Alonso idazlea. Ikerketari dagokionez, Arnau de la Nuez, ustez Espainiako agente sekretu ohiaren haritik tiraka, 2017an miaketa batzuk egin ziren Landetako Mont-de-Marsanen, baina ez zuten emaitzarik izan. Han bertan dagoen beste eremu bat arakatzea eskatu zuen ondoren familiak, eta Auzitegi Nazionalak bideratu zion eskaera Frantziako Justiziari, baina honek ez du oraindik miaketa berririk agindu.

Antzera *Pertur*-enean ere, badira bi hipotesi nagusi, estatuarena –italiar neofaxistak exekutore– eta ETarena. Egañak gerra zikinari ematen dio sinesgarritasun handiagoa. Agian hori da zabalduena euskal gizartean, baina *Naparra*-ren kasuan baino zailagoa handiagoarekin. Euskal gatazka sakon aztertu duen Emilio Lopez Adan *Beltza* ikerla-



2017an Mont-de-Marsanetik 25 bat kilometro, Brocas eta Labrit artean egin ziren miaketetan, ezkerretik eskuinera, Iñaki Egaña, Eneko Etxeberria eta Paco Etxeberria.

JAGOBA MANTEROLA / FOKU

riak ere zabalik uzten ditu kasuak, baina *Borroka armatua Euskadin. 1967-2011* liburuan argi ikusten da ETaren hipotesiari ere sinesgarritasun handia ematen diola: “Gaurko ikerle batzuek *Naparra* bilakatu dute Estatu terrorismoaren lagin garbia (*Pertur* eta *Popo* Larre bezala) eta, salbuespenak salbuespen, erakunde armatu desberdinen arteko arazoak ez dira gehiago aipatzen. Bada horretan hautu politiko-estrategiko bat, Ezker Abertzalearen bilakaerari lotua”. Kasuotan, historiografia abertzaleari ere kritika luzatzen dio: “Historiografia abertzalea tronpatzen da (eta jendea

tronpatzen du) Berezien [ETA pm-ko adarra] hipotesia bakarrik Estatuaren zerbitzuko ustelek edo ergelek mantentzen dutela erraten duelarik”.

Urteetan esperantza piztu eta itzaltzen da hainbatetan, *Pertur*-en kasuan 2019. urtean izan zen argi une horietako bat, eta Egañak-eta pentsatu zuten Kataluniako masia batean agertutako gorpua *Pertur*-ena zela: “Ziur ginen, eta duela 30 urte aurkikuntza horrekin topo egin izan bagenu, eta genituen datuak izanda, publiko egingo genuen”. Baina ez, DNA probak egin eta frogatu zuten ez zela *Pertur*.



2021eko azaroan argitaratu zen liburu honetan oinarritu dugu erreportajea.



Jean Louis Larre, *Popo*

Desagerpena: Leon, Landak (Akitania).
1983 abuztuak 7.
Iparretarrak-eko kidea.





Celes Alvarez eta Eneko Etxeberria, *Naparra*-ren ama eta anaia, Ziburun, desagertuaren autoaren bolantearekin.

POPO LARRE ETA CARBON BLANC-EKO GAZTEA

Larrek militatu zuen Iparretarrak (IK) erakundeak beti defenditu du Frantziako Estatuko segurtasun indarrek desagerrarazi zutela, 1983ko abuztuaren 7an, erakundeko lau kideekin Landetako Léon-eko kanpinean izandako tiroketaren ondoren. *Popo*, Gabi Mouesca, Filipe Bidart eta Ttotte Etxebeste omen ziren lau militanteak. Urte luzez ikerketa kateatuta egon da beste auzi batekin, sasoi hartan Carbon Blanc herrian desagertutako 15 urteko Pascal Dumont gaztearekin. Gaztearen familiari itsasoak itzulitako gorpu bat eraman zion Gendarmeriak, baina hark ez du inoiz ezagutu bere seme gisa. Herriko hilerrian lurperatu zuten.

IK-k pentsatu zuen itzulitako gorpu *Popo*-rena izan zitekeela, eta 1983an, erakundeko kideek gorpuari orkatileko hezur zati bat kendu zioten DNA probak egiteko. Gorabehera asko eta konplexuak izan dira analisi hauekin, denboran ere biziki luzatu dira, eta ondorioztatzen izan da Carbon Blanc-eko hilerriko gorpu hura ez dela *Popo*-rena. Hala ere, oraindik proba gehiago egin beharko lirake eta une honetan, auzia urte luzez kateatuta egon ondoren, bada horretarako aukerarik, Egañaren arabera. Halakoetan ohikoa den maneran, auziaren hariak biziki nahastu ziren, eta Gendarmeriak esan zuen bere kideek hil zutela.

Ofizialki Galíndez desagertuta dago, baina Egañak liburuan aipatzen duenez, berak ikertutakoaren arabera, haren gorpua XX. mendeko 50eko hamarkadaren amaieran agertu zen, Raul Fontana epaileak irekitako diligentzien ondoren

Egañak dioenez, Bidart eta Mouesca izan dira ikerketaren akuilu handienak azken urteetan eta orain ikusi beharko da ea zein haritik tira litekeen.

ANNIE INTXAUSPE ETA PATRICK LY


Agian desagertutako kasurik ezezagunena Annie Intxauspe eta Patrick Ly-rena dira, Donibane Lohizunen ikusi zituzten azkenekoz, 1976an, *Pertur* desagertu baino hilabete batzuk lehenago, Behobiara zihoazela esanda. Xabier Soubeletek –laguna zuen Intxauspe– idatzitako *Oroitzirriak. Baztango lapurtar baten leihotik* (Maiatz, 2006) liburuan aipatu zen afera, baina desagertutako kasuek ez

Jose Miguel Etxeberria Naparra

Desagertutakoa: Ziburuko.

1980ko ekainak 11.

Komando Autonomoetako kidea.



zuten oihartzun zabalik izan. Annie Intxauspe zuberotar oso ezaguna zen errefuxiatuen ingurunean, eta Espainiako segurtasun indarrek ere atxilotu zuten birritan, Hegoaldean ari zelarik. Egañak dio garaiko errefuxiatu askorekin hitz egin duela Intxausperen gainean: “Denetarik entzuten da hari buruz, gorroto eta amodio istorioak”. Egañaren kontakizunean Intxauspe ei litzateke klabea desagertutakoa, eta Ly argazkilaria azken garaietako laguna ei zen.

Askok laburtuz, honakoak dira desagertutakoen hipotesiak: bat, Poliziak lortu zuen Intxauspe kontrolatzea eta salatari bihurtu zuen, ETak edo errefuxiatuaren batzuek beren kabuz hil zuten. Beste hipotesia: Poliziarekin aritu ondoren, errefuxiatuei informazioa pasatzen zien, joko bikoitz horren ondorioz Batallón Vasco Españolak bahitu eta desagerrarazi zuen. Lopez Adanek ere labur aipatzen ditu lerro batzuk gorago aipatu liburuan. Datuen faltan zabalik uzten du kasua, gehituz ezin dela baztertu ETak edo euskal talde armaturen batek egin izana “etsaiak baztertzeke”: “Hau ere gelditu da argitzeke eta inork ez du ikeritu, hain segur oso deserosoa delako (...) Annie, errefuxiatuei hurbila, militantzia-rik baztertu zen; haren lagunak, argazkilaria, nonbait salatari fama bildu zuen. Biek nahikoa bizi marjinala zeramaten. Handik, makaltasunak, hipotesiak eta isiltasuna”.



**Jose Humberto
Jorge Juan García
Fernando Quiroga**

Desagerpena: Donibane Lohizune.
1973ko martxoak 24.
Irunen bizi ziren langile galiziarrek.

IRUNGO HIRU LANGILEEN KASUA

José Humberto Fouz, Jorge Juan García eta Fernando Quiroga, Irunen bizi ziren jatorri galiziarreko herritarrak hirurak. 1973ko martxoan desagertu ei ziren Donibane Lohizunen. Kasu honi buruz asko idatzi izan da, baina oro har, ez da batere hedatu. Egañak Irungo aduanetako langile gisa aurkezten ditu hiru gazteak. Lopez Adanek dio Quiroga aduana agentzia bateko langilea zela, Eskobedo garraio enpresa batean ari zela, eta García langabetua zela.

Kasu honetan ere bi hipotesi nagusi dira, eta bietan errudunak dira ETA edo euskal errefuxiatuen ingurunea. Batean, ETak edo haren bueltakoek nahastu zituzten poliziekin, hil eta desagerrarazi. Bestean, egiazki poliziak ziren, erakunde armatuak deskubritu egin zuen, eta hil eta desagerrarazi zituen. Saez de Santamaría Guardia Zibileko jenerala zenak, esaterako, publikoki aitortu zuen Espainiako Poliziaren zelatarriak zirela. Frantzia 1975ean itxi zen guztiz kasua, eta oro har, giza eskubideen urraketak ikertu dituztenek, besteak beste Eusko Jaurlaritzarako lanean aritu den EHUKo lan taldea, kasua oso gutxi ikertu dela salatu dute. Egañaren esanetan,

José Humberto Fouz, Jorge Juan García eta Fernando Quiroga, Irunen bizi ziren jatorri galiziarreko herritarrak hirurak. 1973ko martxoan desagertu ei ziren Donibane Lohizunen

bere ustez errefuxiatu talderen batek desagerrarazi zituen, baina ez zehatz-mehatz ETak aginduta.

Lopez Adanen ustez, “garaiko ingurunean sinesgarri izan daiteke hiru pertsonen susmoa hartuta, militante talde bat bere kabuz aritzea, beroan bero bat hil eta denen estaltzeko gero beste biak akabatzea”. Eta kasuari buruzko kon-

klusio gisa honakoa: “Errebindikatu gabe eta froga materialik gabeko gertakaria da. Balizko biktimak errepresioan inplikatu gabeak ziren. Militanteen alde-
tik, izatekotan autodefentsarako ekintza oker bat izan zen, oso gaizki erama-
na, eta geroko komunikazioa oso gaizki kudeatua”. Bere ustez familiek merezi dute egia jakitea, baina “oro har, Erakundeak hautatu du bere ekintzaileei babesa ematea, biktima inozenteen edo ekintza gehiegizkoen familiei ekar zekiekeen minaren gainetik”.

Kasu honen gisakoa izan daiteke Jesús María González eta José Luis Martínez Polizia inspektoreena, Hendaiaren desagertuak 1976ko apirilean. Hipotesi nagusia da ETako adarren bategen hil zituela eta desagerrarazi. 1977ko apirilean gazte talde batek topatu zituen gorpuak Angeluko hondartzako bunker baten azpian ehortzita. Inork ez ditu hilketak bere gain hartu.

PEDRO BAIGORRI SUKALDARIA

Pedro Baigorri Kolonbian desagertu zen 1972ko urriaren 6an, Kolonbiako gerri-
llarekin borrokan ari zela. Haren ibilbi-
dea gehiago ezagutu da azken urteetan,
bereziki Baigorri. *Un vasco en la guerrilla colombiana* (Baigorri. Euskal herri-
tar bat Kolonbiako gerrillan. Txalaparta, 2017) argitaratu denetik. Zabaldikan (Nafarroa) jaio zen Baigorri 1939an. Sukaldaritza munduan hasi zen lanean gaztetatik, besteak beste Iruñeko Yoldi eta Donostiako María Cristina hoteletan. Parisera egin zuen jauzi ondoren, Galesko Printzea hotelera.

Fidel Castrok Kubako jabetxeen sarea egituratu nahi zuela eta, norbaiten bila ari zen eta Baigorrienganaino iritsi ziren haren ordezkariak. Kubara jo zuen ondoren, eta sarri Castrotarren sukaldari moduan ere jardun ei zuen. Eta handik Kolonbiara, gerrillarekin

Pedro Baigorri

Desagerpena: Colombia,
Cesar departamentua.
1972ko urriak 6.
Gerrillan borrokan ari zela
desagertua.





Jesús Galíndez

Desagerpena: Dominikar Errepublika.
1956ko martxoak 12.
Eusko Jaurlaritzako ordezkaria AEBetan.
FBIko agentea.

borrokatzera. Kolonbian 83.000 indarrezko desagertu daude eta bake akordioen ondorioz asko azkartu da haien bilaketa. 2021eko irailean ustezko bere gorpua topatu zuten, Cesar Departamentuko hilerri batean. Orain DNA frogak egin behar zaizkio, Paco Etxeberria auzi medikuak badu familiari ateratako lagin bat, eta prozedurak bere bidea egin dezan itxaron behar da.

GALÍNDEZ, ESPIOI JELTZALEA

Jesús Galindezen kasua oso ezaguna da, eta lotua dago 36ko Gerrari eta Gerra Hotzaren garaia. Egañak, aurretik hemen aipatutako kasuetan legez, haren desagerpenaren berri zehatza ematen digu liburuan, espioien film batean murgilaraziz. Madrilen jaio zen, baina Amurrión hazi zen bertakoa zen ama hil ondoren. 1946an New Yorkera jo zuen eta erbesteko Eusko Jaurlaritzaren ordezkaria izan zen bertan, beste gauza askoren artean, adibidez abokatu edo idazle. Zereginen artean, aldiz, espioi gisa nabarmendu zen eta bereziki FBIrentzat jardun zuen, baina baita CIArentzat ere. Columbiako Unibertsitatean ere ikasi zuen, doktore te-

sia Dominikar Errepublikari buruz egin zuen eta Leonidas Trujillo diktadoreari oso kritika gogorra egin zion.

Trujillok aginduta, 1956ko martxoaren 12an New Yorken bahitu zuten, errepublikara eraman, torturatu, hil eta desagerrarazi. Egañak aipatzen du 2007an bildu zela Ibarretxe lehendakariarekin eta Iñaki Anasagastirekin gaiaz hitz egiteko, oso ongi hartu zutela eta ikerketarekin jarraitzea animatu ere bai. EAJren barruan, azaldu zioten, Joseba Agirretxea diputatua arduratzen zen gaiaz, eta harengana bideratu zuten. Agirretxerekin bildu zen, baina "nik eman nion informazioa 'galdu' zuen eta gero lotsagabe saihestu ninduen". Ez zuen ikusi ikertzeko interesik EAJn.

Ofizialki Galíndez desagertuta dago, baina Egañak liburuan aipatzen duenez, berak ikertutakoaren arabera, haren gorpua XX. mendeko 50eko hamarkadaren amaieran agertu zen, Raul Fontana epaileak irekitako diligentzien ondoren. Ikerketarekin aurrera jarraitzeko zantzuak ikusten zituen Egañak, baina era berean, "EAJren sostengurik gabe, ez zuela merezi" iruditu zitzaion eta ikerketa alboratu zuen.

EUSKARA IKASLEA ZARA? IRAKASLEA?

Martxokoa, kalean!



- EUSKARAZ IRAKURTZEKO OHITURARIK EZ DUTENENTZAT
- BALIAGARRIA EUSKARA IRAKASLEENTZAT
- 10 ZENBAKI URTEAN

Egin harpidetza aizu.eus atarian. Harpidetza digitala, paperezkoa edo digitala+paperezkoa.

Egaña Donostian 36ko Gerrako desagertuei egindako monumentuan. Berak parte hartu zuen 400 desagerturi buruz egindako ikerketan.



DANI BLANCO

HERNÁNDEZ, ILUNTASUNA NAGUSI

Tomás Hernández 1911n jaio zen Zaragozan eta umetan joan zen bizitzera familiarekinartzelona. Gerran Durruti zutabe anarkistarekin jardun zuen, eta gerra ostean Parisen errefuxiatu zen. Han ezkondu zen gerratik ihesi iritsitako Ines Martínez irundarrarekin. Emaztearen familiatik gertu egoteko, bikoteak udaro igarotzen zituen oporrak Hendaian. 1979ko maiatzaren 15eko arratsaldean hiru pertsonak bahitu egin zuten. Baratzean lanean ari zen auzoak ikusi zuen guztia.

Hortik aurrera dena nahasia izan da. Hendaiaiko Gendarmeriaren iturriak aipatuz, *El Diario Vasco*-k Hernández gaizkile ezaguna zela argitaratu zuen. “Gezur boribila zen, baina Donostiako egunkariak ez zuen informazioa zuzendu”, azpimarratu du Egañak. Hipotesi nagusietakoa da Hernández ustekabeko gertaka-

ri itsusi bateko lekuko izan zela, eta horregatik bahitu zutela. Litekeena da Peru Larrañaga errefuxiatuaren hilketa ikusi izana eta horregatik desagerrarazi zutela. Familiak inoiz ez du onartu hipotesia, eta bere aburuz, desagertpena lotua dago 40 urte lehenago Bartzelonako gerra kontuekin, “burges katalan baten mendekua litzateke”. Badira, halaber, uste dutenak GAlen akats bat izan zela, norbaitekin nahasi zutela, Segundo Mareyrek gertatu zen bezala. Oso kasu korapilatsua da erreportajeke lerro hauetan dena azaltzeko, baina Egañaren liburuan zehatz aipatzen dira hipotesi guztiak, haien indargune eta ahulguneekin.

Ikusten denez, argi gutxi eta hipotesi ugari kasu gehienetan. Ikerlari eta senide askok uste du Espainiako Gobernuak sekretupean dituen dokumentuak desklasifikatzean egon daitekeela kasuok argitzeko klabea. Egaña ezkorragoa da, bere ustez,



Tomás Hernández

1979ko maiatzak 15
Desagertuta: Hendaia
36ko Gerrako errefuxiatua Parisen

“Trantsizioan gertatu zen bezala”, ar-txiboetan egin beharreko garbiketa egina dagoelako. Konfiantza gehiago du lekukotasunetan, “baldin badaude, lekukoak orain agertu behar dira, bestela hilko dira”.

Bila eta bila jarraitzea, hori da desgertuen senideen patua, eta horretan ari dira makina bat familia oraindik. Ondorioz, noizean behin, gaiak hartzen du presentzia gizartean. Agian *Naparraren* familia da bilaketa horretan tematenetakoa, berriki *Bolante baten historia* filmean ikusi dugun bezala. Baina denbora ez da alferrik pasatzen, eta gehienetan bere lana egiten du, auziak ahanzturan edo lozorroan utziz, senideak ahitu egiten dira bilaketan edo, beste barik, hiltzen dira. Justiziarren ikuspegitik, aldiz, bortxazko desagertuen kasuak ez dira inoiz preskribatzen eta egileen erantzukizun penalek ez dute iraungitze datarik. Eta dudarik ez, justizia garrantzitsua da familientzat, baina edozeren gainetik, ikerketaren amaiera argia nahi dute, eta batez ere gorpua, edo harekin zer gertatu den jakitea, urte amaigabeen ondoren behin betiko dolua egin eta bakean bizitzen segitzeko. ●



JOXEMAI (WIKIPEDIA), CC BY-SA

ELKARREKIN INDARTSUAGOAK IZAN GINEN GARA IZANGO GARA




#sarekosororitatea

EMAKUMEEN
Nazioarteko Eguna

araba álava
foru erkandak diputacion foral

Laia

37°C, osasunaren eta gaixotasunaren arteko muga



NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA

Leipzig (Alemania), 1850. Carl Reinhold August Wunderlich (1815-1877) mediku eta psikiatra aitzindaria hiri horretako unibertsitateko irakasle eta ospitaleko zuzendari izendatu zuten. Pedagogia klinikoa landu zuen bertan, baita diagnosi metodologia zorrotza eta pazienteen behaketa enpirikoa ere. Pazienteen tenperatura neurtzen jarri zuen bereziki arreta, eta sukarra gaixotasuna ez zela aldarrikatu zuen, sintoma baizik. Ospitaleetan tenperatura taulak erabiltzea bultzatu zuen eta etsenpluaren bidez predikatu zuen: ia 20 urte eman zituen 25.000 pazienteen gorputz tenperatura behin eta berriro neurtzen eta, guztira, 1.000.000 datu inguru jaso zuen. Kontuan hartu 30 cm inguruko termometroaz hartzen ziela tenperatura eta 20 minutu behar izaten zirela datua lortzeko.

Lan horren guztiaren ondorioa ere atera zuen: sukarraren muga, batez beste, 37°C-tan ezarri zuen. Baina “batez beste” hori azpimarratu zuen. Gorputz tenperaturak gorabeherak izaten ditu egoera batetik bestera, pertsona batetik bestera, eta ez da muga garbia. Horregatik, ateratako ondorioak 1°C-tako akats marjina zuela aitortu zuen, hau da, sukarraren muga 36,5°C eta 37,5°C artean zegoen.

Wunderlichek erabilitako termometroetako batzuk gorde dira, eta ikerleek



Carl Reinhold August Wunderlich aitzindari izan zen gorputz tenperatura neurtzen eta sukarraren muga ezartzen.

ikusi dute ez zeudela ondo kalibratuta. Medikuek pazienteen besapean hartu ohi zuen tenperatura, eta emaitza, ahoan edo uzkiekin hartutakoekin alderatuta, baxuagoa izan ohi da. Tarte hori berdindu ez ezik, gainditu egiten zuten

Wunderlichek erabilitako termometro klinikoek; gaur egun badakigu sukarraren batez besteko muga pixka bat baxuagoa dela, 36,8°C-tan dagoela.

Baina arazoa ez zen 0,2 graduko akats hori, hainbesteko bilketa lana egin ondoren ezarritako gradu bateko marjina desagertzea baizik. Wunderlichen lana ingelesera itzuli zutenean, gradu zentigraoak Farenheit graduetara pasa zituzten eta, beraz, muga 98,6°F-tan ezarri zuten. Baina 1°Cko akats tarte hori zutenean pasa zuten; Farenheit gradu bateko tarte Celsius gradu batekoa baino askoz txikiagoa eta, beraz, itzulpenean tartearen erdia galdu zen, gutxi gorabehera.

Garai bertsuan, Florence Nightingale (1820-1910) estatistikek medikuntzan zuten garrantzia aldarrikatu zuen. Nightingalaren ekarpena funtsezkoa izan zen medikuntzan eta erizaintzan, baina zehaztasunaren izenean estatistikak orokortzeak dituen arriskuak agerian uzten ditu gorputz tenperaturaren kasuak. Itzulpenak murritzutako akats marjina hura erabat desagertzea eragin zuen, eta Wunderlichen 20 urtetako lan eskerga nolabait baliogabetzea.

Egun, 37°Cek markatzen dute osasunaren eta gaixotasunaren arteko muga. Eta, azken bi urteotan, eguneroko bizitzarekin jarraitzearen eta egun batzuetan isolatu behar izatearen arteko muga ere bai askorentzat. ●



Beijingeko jokoen ondorioa

Negu honetako Beijingeko jokoei zeresana eman dute, besteak beste, neguko jokoei elurrik eta izotzik gabeko eremu batean antolatzeak eragiten dituen kalte ekologikoak direla eta.

Baina instalazioak eraikitzeke lanek ondorio positibo bat izan dute arkeologiar eta historiari dagokionez: Jin

dinastiako (1115-1234) jauregi itzela. 2017an aurkitu zituzten lehen arrastoak, villa olinpikoa eraikitzen ari zirela eta, egun, aztarnategiak 140.000 metro koadroko azalera du. 72 eraikin aurkitu dituzte eta jadezko, brontzezko eta beste material batzuek egindako eskultura piloa ere bai. ●

ESPELLETENIA

Ostatu batek eskaini ditzake aukera anitz

ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA

Larzabaleko (Oztibarre, Behe Nafarroa) Espelletenia ostatuan kafe bat hartuz hemendik aurrera ARGIA irakurtzeko aukera izango duzu, Oztibarre inguruan bazabiltza, irakurle. Ostatua, jatetxea eta hotela dituen eraikin eder honek baditu nagusi berriak eta ibarreko dinamiztatza tresna moduan baliatu nahi dute. ARGIAko komunitatearen parte izatea proposatu digute eta, noski, pozezu hartu dugu eskaera.

Maialen Karrikondo eta Jeremi Laronde dira ostatua martxan jarri dutenak, baina Karrikondok badu leku honekin lotura familiara. 1966an erosi zuten bere aiton-amonek lehendik ere ostatu zena eta erretreta hartu arte aritu ziren lanean. Ondotik, jarraipenik ez inguruan eta saldu egin zuten, orain bilobak bere egin duen arte. "Kudeaketaren erritmoa hartzen ari gara oraindik", dio bikote gazteak, baina buruan badituzte hamaika ideia balarari eskaintzeko.

Oztibarrerri eman nahi diote bizia, hori dute helburu. Bertan lan eta bizi. Eta espazioak ematen du horretara-

ko. Uztartu nahi dituzte ostatua eta laborantza, atarian duten lur zatia aprobetxatuz, eta barnean epe labur edo ertainean antolatu nahi dituzte animazioak: hitzaldiak, kontzertuak... baliatuz jatetxeak dituen gela ezberdinak. Ibarreko jendeak proiektua haien eskuetan hartzea nahi lukete, baita ere, beraien bilkuretarako edo azpiegitura bezala. Liburutegi bat prestatzeko asmoa ere badute, hau izango da hurrengo pausoa. Dagoeneko otorduak eskaintzen dituzte, gelak alokatzen eta edariak zerbitzatzen.

Euskarak ere badu leku polit bat Espelletenian eta euskal prentsarekin eman nahi diote ikusgarritasuna ostatuan. Astero jasoko dute ARGIAren zenbaki berria bezeroek irakur dezaten eta beste lau ale ere izango dituzte bertan salgai, inork erosi nahiko balu.

Nik gorde dut Espelletenia bisitatu beharrekoen zerrendan. Zenbat leku eskas ezagutzen ditugun ikusita, altxor hauek zaindu beharra daude. Xantza on, lagunak. ●



ESPELLETENIA

Ongi etorri Komunitatera!

Arrazoi hauek eman dituzte egun hauetan ARGIA Jende egin diren kide berrietako batzuek, komunikabide independente hau ekonomikoki babestu eta proiektua bultzatzeko. Ongi etorri denei, komunitatera!



"Ikusi izan ditudan artikuluak oso interesgarriak iruditu zaizkidalako eta euskarazko kazetaritzaren beharra dugulako"

Iruñeko Nahikari

"ARGIAren lana asko balioesten dut: astekariak, Larrun, podcastak... lan aparta egiten duzue, aupa zuek! Eskaintza zabala da eta publikoa ere halakoxea izatea nahi nuke. Ea guztion artean Argiazale berriak lortzen ditugun!"

Tolosako Arantxa

"Nire ustez, egun dauden hedabideen artean ikuspegi kritikoena agertzen duzue eta jorratzen dituzuen proiektuen filosofiarekin bat egin nahi dut. Milesker egiten duzun lan txukunagatik!"

Ilarduiako Itziar



AGENDA

Bidean

Aurrera egin nahi duen irakaslearen dekalogo

Koldo Rabadan Izagirre irakasleak liburua aurkeztuko du Olaberrian, kultur astearen baitan:

🕒 **Martxoaren 11n 17:00etan**

📍 **Olaberria**

FRUTA-ARBOLAK OSASUNA



JAKOBA ERREKONDO
JAKOBA@BIZIBARATZEA.EUS

Lagun baten gomendia dela medio, Nafarroako Gobernuaren altzoko INTIA nekazaritza institutuko Laborantzen Babeserako atalean dagoen jakinarazpenguetik *fruta-arbolak osasun kudeaketa zuzena egiteko kontuan izan behar dituzun gomendioak* dokumentua eskuratu dut, eta baita amaren batean jan ere. Bertan fruta-arbolak izurrite eta gaixotasunak saihesteko erabilgarriak diren hamar aholku agertzen dira.

Arbolak inausketa, forma emateko eta fruituaren emana sustatzeko teknika izatetik harago, erabili arboladiaren bentilazioa hobetzeko, onddo hezezealek dakartzaten gaitzen eraso eragozteko.

Hartu tamaina ongarriketari eta ureztaketari. Ez da komeni arbolak gehiegizko indarra izatea, horrek izurriteak eta gaitzak ezartzeko baldintzak hobetzen ditu.

Ez utzi uztaren eta inausketaren hondakinak arboladiaren bertan. Aurrez izandako gaitzen eta izurriteen hondakinak ere hor diraute, berriz ere berritzeko zain.

Inausketa egiterakoan, arboleak balezko zauri, hantura edo tumore, txankro edo momifikatutako fruiturik, kendu. Horretarako zauri handiak egin behar badira, zaindu horiek ere. Miatu zorri, kotxinila eta edozein izurrite arrastorik ba ote dagoen ere.

Sasoia bete denean, kontuan izan eguraldiaren gorabeherak, gaitzak eta



izurriteak etorri eta asentatzeko zuzen-zuzenean eragiten baitute.

Arbolei eragiten dieten izurrite batzuk kontrolpean izateko, badaude produktu fitosanitarioen erabileraz gain edota horrekin batera baliatzeko ordezko teknikak: harrapaketa masiboak, nahasketa sexuala...

Erabili fauna laguntzailea lagunduko duten teknikak. Bioaniztasuna izurrite ugariaren kontrolbide zuzenena da.

Bete jakinarazpenguetik adierazten diren aplikazio orduak, eta erabili arbo-

larentzako eta arazo bakoitzarentzako baimendutako produktuak.

Loratze garaian, saihestu tratamenduak, eta, erabili behar izanez gero, hobe polinizatzaileen jardura orduetan ez erabiltzea. Kontuz hosto erortze sasoian. Erortzen den hosto bakoitzak zauri ireki txiki bat uzten du, gaixotasunak sartzeko bide aproposa.

Gaitzak sortzen dituzten onddoak eta izurriteak ere bizi behar dute, baina gure ekinak harrotu edo baretu egingo dituzte. ●



MARTXOAK 8 • EMAKUMEON NAZIOARTEKO EGUNA

Prekaritaterik gabeko zainketa sistema baten alde

ELA
EUSKAL SINDIKATUA



BERGARAKO ELIKADURA MAHAIA

ELIKADURAREN BUELTAN GOBERNANTZA
EREDU BERRIAK SORTZENGARAZI ZABALETA
@TIRIKITRANN

Elikadura kate osoan eragiteko asmoz, marko berri bat sortu da azken hilabeteotan Bergaran: Elikadura Mahaia. “Gure bailara oso industrialia izan arren, elikaduraren eta lehen sektorearen bueltan eragile dezente genbiltzala sumatzen genuen, eta sinergiak lantzeko eta guztiak nora-bide berean jartzeko asmoz sortu dugu mahaia”, azaldu du Ekaitz Aranberri Zezeaga zinegotziak. Udaleko ordezkarienez gain, Debagoienako Landa Garapenerako Elkartek, Ereindajan proiektuak, herriko ekoizle eta nutrizionistek eta eraldaketa soziala bultzatzeko sortu berri den Ehundu proiektuak hartzen dute parte marko horretan.

ERRELEBOAN ETA AZOKAN
ARRETA JARRITA

“Badirudi kontsumo ohiturak pixkanaka aldatzen ari direla, baina ekoizpen nahikorik ez egotea ere bada arazoa”, dio Aranberrik. Izan ere, azken urteotan herrian eta eskualdean nekazaritzako eta abeltzantzako jarduerak beherantzko joera izan dute, eta horregatik, Elikadura Mahaitik arreta berezia jarri nahi izan diote ekoizpenaren alorrari. “Nekazaritzako erreleboan eragiteko lantalde bat sortu da, erreleboa bermatzeko eta per-



tsona berriak lehen sektorerak erakartzeko lanean ari dena”. Belaunaldi berriak sektorerak erakartzeko eta honezkero horretan ari direnak babesteko, ezinbestekoa da baliabideetarako sarbidea erraztea. Zentzu horretan, herrian landu litezkeen lur bila ari da lantaldea.

Erreleboaren inguruko lanketaz gain, herriko baserritarren azokan ere jarri du fokua mahaia. “Bere garaian, azokaren inguruan parte hartze prozesu bat egin zen, eta horri jarraipena eman diogu orain”, azaldu du zinegotziak. Azoka eraldatzeko eta indartzeko asmoz, arkitekturen enpresa bati proiektua egiteko eskatu diote, beste zenbait herritako azokak eredutzat hartuz. Etorkizuneko azoka definitzea eta obra egitea da haien asmoa.

DEBAGOIENA 2030 SAREKO KIDE

Aurreko bi lanketa horiez gain, hirugarren zutabe bat ere hartu du mahaia

beregain: duela zenbait urtetik bailaran martxan den Debagoiena 2030 sarean sartuta dago, eta eskualdeko jangela kolektiboen inguruan lanketa egiten ari dira bertatik. “Jantokien gaia lantzea eta alor horretan eragitea ere bada gure asmoa. Momentuz, proiektu piloto moduko bat abian jartzeko da ideia”, gehitu du.

Oraindik hastapen fasean badago ere, ari da martxa hartzen Bergarako Elikadura Mahaia, eta egitasmoko kideak pozik daude izaten ari diren erantzunarekin. “Azken batean, eragileen aldetik kezka partekatua zegoen gaiaren inguruan, eta buruan geneuzkan proiektu horiek guztiak ildo berean jartzeko beharra zegoen”, dio Aranberrik. Udaletik, gobernantza eredu berrien aldeko apustua egiten dute, eta proiektu hau ere ildo horretan kokatzen dute: “Espazio partekatuak sortzea da asmoa, pixkanaka gobernantza eredu parte-hartzaileagoak bultzatzeko”. ●

ekologikoa, dena hobetzeko!



Euskadiko Nekazaritza eta
Elikadura Ekologikoaren
Kontseilua
Consejo de Agricultura y
Alimentación Ecológica
de Euskadi

Babesleak:



“ ”

Niretzat inportantea zen makillaje gutxirekin agertzea

Eider Rodriguez

Eraikuntzarako materiala (Susa, 2021) kaleratu du Eider Rodriguezek, bere lehenengo literatur lana *Bihotz handiegia*-z (Susa, 2017) geroztik. Aitaren heriotzaren atarian, harekin izandako harremana haztatzen du idazlea ere baden alaba batek, zatika eta puskaka, materialak eta ahotsak tartekatuz. Maurice Blanchoten epigrafeak dioen bezala, hondamendiari hitz egiten utziz.

 DANELE SARRIUGARTE MOCHALES  DANI BLANCO

Zer moduz doa argitalpenaren ondorena?

Egia esan, harrera oso ona izaten ari da. Aurreko lanekin baino jende gehiago hurbildu zait, fisikoki ere bai, iritzia ematera edo zerbait kontatzera. Liburua aurkeztean pixka bat gogortuta nengoen, baina jendearengandik etorri zaidan horrek lagundu dit samurtzen. Eta idatzi dudan hori onartzen.

Aurkezpenean esan zenuen idatzi nahiago ez zenukeen liburua dela hau, baina behin idazten hasi zinenean blokean irten zitzaizula.

Ez idatzi nahiago izango nukeen istorio bat da, nahiago nukeelako bizi ez izan, baina behin bizita, bizitako hori istorio bilakatzeko unea oso aberasgarria izan da. Lagun batek esan zidan orain arte idatzi dudana prestaketa bat izan dela beste hau idazteko. Ez dut uste hori denik, bai-

na sentsazioa dut ez dudala ipuinekin bezalako buruhausterik izan. Nahiko modu grafikoan sentitu dut atera dudala, tiraka eta tiraka. Ez dakit nondik.

Ipuinak idaztearekin alderatuta zertan izan da desberdina?

Oso belarriz idatzitako liburua izan da. Etengabe entzun behar nuen nolako doinua zuen, nahiz eta ez dudan ahoz gora irakurri. Musika bati edo doinu bati jarraitu diot. Ipuin batean horrek ez nau eramaten. Aldamio gehiago behar dut ipuin bat idazteko, nahiz eta laburragoa izan.

Nola kudeatu dituzu material autobiografikoaren erabilerak ekar ditzakeen kontuak eta komeriak?

Idazleok esaten dugunean istorio bat daukagula, zer esan nahi dugu? Nire kasuan, uste dut esan nahi duela badau-

kadala zerbait kontatu nahi dudana, ulertu ahal izateko, edo beste norabait iristeko. Eta honekin gauza bera. Baneukan material autobiografikoa, ez nuena inoiz narratu, ez nuena inoiz idatzi, eta iruditzen zitzaidana idatzi behar nuela, nolabait ere ulertu ahal izateko. Hortik aurrera, zintzotasuna izan da nire abiapuntua; zintzotasuna, edozer zelarik ere bidean aurkitzen nuena.

Eta eleberria aurkezteko unean?

Hor bai, hor eduki ditut hainbat kontu: beldurra, damua, errua, atzera egiteko gogo. Azkenean ez dakizu jendeak nola hartuko duen, ez baita argazki bat non edertuta agertzen zaren. Baina, era berean, nire ibilbidean hori egin izan ez banu, ez dakit nola jarraituko nukeen aurrera. Orain ere ez dakit, baina niretzat inportantea zen makillaje gutxirekin agertzea.



Mugarri bat izan daitekeela uste duzu?

Mugarri bat nire ibilbidean esan nahi duzu? Ez. Nik ez daukat planik literaturari dagokionez. Ez zait ez ona ez txarra iruditzen, baina ez dut horrela lan egiten. Mugarri pertsonala izan da, hori bai.

Baina ez duzu uste mugarri pertsonal horrek eragina izan dezakeela gero idatziko duzunean?

Bai, baina zerk ez? Nik istorio bat neukan eta ez nion uko egin nahi hori idazteari jendeak esan zezakeenagatik.

Aita-alaba batzuen arteko harremanaren garapena kontatzen da *Eraikuntzarako materiala*-n, eta besteak beste zehaztasun handiz deskribatzen da aitaren alkoholismoa, horrek inguruan sortzen duen guztia, baita gizartearen jarrera ere. Gure kulturen txertatua egonagatik kosta egiten zaigu gaiak hitz egitea. Uste duzu liburuak balio dezakeela horretan eragiteko?

Liburuaren abiapuntua aita-alabak izan dira, haien arteko harreman luze bezain konplikatu eta tristea. Hori kontatu nahi nuen. Noski, dena dago alkoholak zeharkatuta. Baina erronka ez zen gaiak hitz egitea, eta ez nekien hainbesteko presentzia edukiko zuenik. Bukatu nuenean konturatu nintzen alkoholaren historia ere bazela. Gure herrian egindako sarraskiaren adibide bat ere bada. Irakurle batzuek hortik heldu diote liburuari, eta guai egon da.

Narrazio konkretu baten bidez azken 40 urteotako historia soziala erakusteko bertutea dauka eleberriak nire ustez.

Argi neukan Oreretak presentzia handia eduki behar zuela, eta garaia ere bai, erabat lotuta dagoelako istorioarekin. Azkenean liburu bat artifizio bat da, eta nik beste norabait iritsi nahi nuen istorio hau kontatuta, ez bakarrik nire korapiloa askatzera. Nahi nuen nirea zen horrek beste zerbait esatea jendeari. Idazten dugunean uste dut saiatzen garela hori egiten. Eta ikuspuntu estetiko batetik egindako zerbait ere bada, kolpe bat ere bilatzen dut zentzu horretan.

Esanguratsua da liburuko guraso erdaldunek euskararekiko eta Euskal Herriarekiko duten lotura.

Horretaz idatzi behar nuen derrigor, istorioak berak zekarrelako, eta Oreretan oso

modu nabarmenean izan gara gu eta besteak. Nik besteei buruz hitz egin dezaket guk hitz egiten genuen bezala, beste parte ez dut ezagutzen. Badakit badagoela, baina ez dagokit niri kontatzea.

Pudore handiarekin idatzi dut, ikuspegia oso gogorra da eta: narratzailearen familiak bestea gutxiesten du, zertarako eta oraindik eta hemengoago sentitzeko. Dena den, kontua ez da esatea "begira zer gaiztoak edo zer xenofoboak diren". Hori ez zitzaidan interesatzen, horren atzean dagoen motibazioa baizik. Errotze nahi bat dago, ekosistema bat zurea bezala de-

fendatzeko amorru bat, modu salbai eta itsusi batean, baina zergatik? Parte hori interesatzen zait.

Gaztelako familia batetik dator ama, baina Euskal Herrian jaioa da eta ez du loturarik Gaztelarekin; aita, berriaz, familia euskaldun batekoa da, bertan sortua, baina euskararik gabe.

Tipologia asko dago hemengo jendearen eta hango jendearen artean, eta matiz horiek oso interesgarriak iruditzen zitzaizkidan, zeren hortik ere bagatoz, eta iruditzen zait garrantzitsua dela zer ga-



ren eta zer izan nahi dugun ikus-
teko. Gai hori bai uste dut gutxitxo
jorratu dela.

**Gizonekiko mesfidantzan hezi
dute narratzailea, argi ikusten
da hori gizonekiko duen
harremanean.**

Bada garai baten isla. Hortik ere
bagatoz. Maitasun erromantikoa
aipatzen denean, eta nola hezi gai-
tuzten... Nik uste dut modu asko-
tara hezi gaituztela eta ñabardura
asko dagoela. Liburuan ikusten
dugu ama langile bat, ekonomi-
koki berak uste baino indepen-
denteagoa dena, eta hala ere, edo
horregatik ziur aski, alabari esa-
ten dio ez sinesteko ez erlijioan,
ez politikan, ez gizonengan; zaku
berean sartzen ditu denak. Eta ez
daukazunean eredurik, ez dauka-
zunean oholik naufragio horren
erdian... zaila da.

**Horren harira eszena bat
aipatu nahi nuke: narratzailea
kontzertu batera doa mutil-
lagunarekin eta erakartzen
duen beste tipo batekin.
Hasieran halako lehia
bat sortzen da bi gizonen
arte, baina anaitu egiten dira
narratzailearen gurasoak ezagutzen
dituztenean ustekabe.**

Eszena horretan, gizonen anaidia ikus-
ten da, zuk diozun bezala; bi gizon era-
bat diferenteren arteko lotura, eta tipa
nola debaluatzen den haien begietara,
ikusten dutenean bere familia inolako
glamourrik gabea. Baina tiparen beraren
barruan ere gertatzen da debaluazioa.

**Liburuan agertzen da beste
fenomeno bat, oso deigarria eta
aldi berean oso egiazkoa iruditzen
zaidana. Nola ebatz daitezkeen
ezin-ulertu paternofilial batzuk
biloben agerpenarekin: “Peru eta
Mikele izan dira azken hamabi
urteotan poz handien eman
diotenak [aitari]” eta “Aita hemen
egon izan balitz Mikelek sekulako
besarkada emango ziokeen eta nik
bere gorputzaren bitartez sentituko
nukeen”.**

Ez zaizu iruditzen, azkenean, familia ge-
nealogiak oso arraroak direla? Ikusten
nuen belaunaldi batzuk traban baleude
bezala. Familia horretan, belaunaldi bat
behar izan da besarkada hori gauzatu



“ ”

***Bukatu nuenean
konturatu nintzen
alkoholaren historia
ere bazela. Gure
herrian egindako
sarraskiaren adibide
bat ere bada***

ahal izateko, biloben eta aiton-amonen
arteko maitasun-adierazpena, eta uste
dut hori askotan gertatzen dela, modu
oso eroan. Oso eroa da, zeren azkenean
maitasuna ezin adieraztea ama-alaben
edo aita-semeen artean oso-oso gauza
arraroa da, eta era berean hain da ohi-
koa; gehienok gaude hor harrapatuta.

**Uste dut apustua arriskutsua
zela, baina, niretzat behintzat,
narratzailearen begiradak eutsi
dio: badago oreka bat begirada**

**horretan, badu hostasunetik
eta berotasunetik.**

Nik oso presente daukadan
gauzetako bat da zer zoratuta
gauden denok, zer pentsamen-
du, sentimendu eta ekintza al-
drebesak, kontraesankorrak eta
kaltegarriak izaten ditugun, zer
espezie akastuna garen zentzu
horretan. Zer kaotikoak eta ba-
tez ere zer autosuntsikorak
izan gaitezkeen batzuetan. Eta
uste dut parte hori guztia kon-
tatu egin behar dela, guk ere is-
pilu hori izan dezagun. Niretzat,
erronka da hori dena azaltzea
karikaturan erori gabe edo dis-
tantzia ironiko hiperazido bat
gabe.

**Narratzailearen hitzak
liburuaren lehendabiziko
orrialdeetan: “Agian dena
da hizkuntza arazo bat.
Hasieratik”. Hizkuntza
literarioaren bidez konpondu
beharreko arazo bat?**

Gogoan daukat esaldi hori idatzi
nuenean ez nekiela oso ondo zer
esan nahi zuen, eta oraindik ere
ez dakit oso ondo. Zenbait gau-
za aipatuko ditut: badago aitaren

esanezintasuna, ezin hitz egina, berdin
du zer hizkuntzatan, kosta egiten zaio
gauzak esatea; gero badago idazle den
eta alaba ere baden pertsonaia horren
esanezintasuna: hizkuntza asko, litera-
tura asko, halako mistikotasun estetiko
bat bilatzen du, baina gero ez da kapaz
gauzak esateko, hitz egiteko. Nire ustez
liburu guztia da arazo horri konponbi-
detxo bat eman nahia.

Esango zenuke lortu duzula?

Egon da onarpen bat eta egon da itxiera
bat. Gero bakoitzak ditu bere moduak
hori egiteko, nik hau aurkitu dut, eta
idazketaren bidez ezagutu ditut alderdi
batzuk lehen ezagutzen ez nituenak. Bi-
laketa izan da.

**Ipuinak idazten ari omen zinen
istorio honekin hasi aurretik. Itzuli
zara narrazioetara?**

Idatzita neuzkan ipuinak zuzentzen ibi-
li naiz, eta orain beste ipuin bati ekite-
ko gogoz nago. Tartean sartu zait beste
kontu bat, ez dakidana zer gertatuko den
eta ez dena ipuin bat, baina egia esan
sekulako gogoia daukat fikzio hutsa egi-
teko. Gogoia, beharra eta dena. ●



LIBURUA

Zirriborro bat loreen gainean



EZ DA ERDITZEA IONE GOROSTAZU

ELKAR, 2019

MADDI GALDOS ARETA

Azalak berak ematen du liburuan kontatzen denaren berri. Zirriborro bat ageri da lore batzuen gainean, zurrumbilo bat udaberrian. Horixe da Ione Gorostazuren (Berastegi, 1984) *Ez da erditzea* (Elkar, 2019) poema-liburuak dakarkiguna: amatasunaren edo, oro har, emakumetasunaren ertzak eta argi-ilunak dira bildumaren ardatz.

Iraganetik, orainetik eta etorkizunetik begizatzen du idazleak Adrienne Richen amatasunaren instituzio gisa izendaturikoa, intimoaren eta globalaren arteko koordinatuetatik. Alabatasuna, haurdunaldia, erditzea eta gurasotasunaren inguruan gailentzen den kontakizunaren ifrentzu diren erru, damu, min, ezin eta beldurrak dira erdigunea, eta bereziki, amak ama soil ez direnaren aldarria. Baita, zentzu berean,

emakumeak amatasunaren, familiaren eta besteen bitartez definitzearen aurkako aldarria ere.


Ama ere baden ni poetikoak hezurmamitzen du araua onartzearen eta hura arrakalatzaren arteko tentsio konponezinak sortzen duen ezinegona: “Zenbateraino aldatu mundua ondorengoentzat / zenbateraino moldarazi ondorengoak, mundura”. Honekin, gaur-gaurkoz erantzun argirik ez duten galderak eta kezak agertzen dira hitzotan, poetarenak ez ezik beste hainbat idazle eta irakurle andanarenak ere badirenak. Izan ere, Gorostazuren hau amatasunaren idealizazioa auzitan jarritz emakumezko idazleek argitaratutako obren konstelazioan koka genezake: Alaine Agirreren *Karena* (Elkar, 2021) eta Katixa Agirreren *Amek ez dute* (Elkar, 2018) eleberriak eta Leire Bilbao-

ren *Etxeko urak* (Susa, 2020) poema-liburuarekin batera, besteak beste.

Poema batzuek lirikotasun handiagoa dute, bestetzuk narratiboagoak dira, eta erabiltzen dituen baliabide poetikoek topo egiten dute eguneroko gauzen arruntasunarekin.

Erantzunen xerka miatzeko bideak proposatzen ditu idazleak, amatasuna denaren eta izan zitekeenaren arteko zubia eraikitzeke birdefinizio ariketa eginez: “Eta jarri beharko dugu elkarrekin zalantzan / elkarrekin sortu zehaztu eta arautu beharko / egunero-egunero erabaki / zer den maitasuna guretzat”.

Esan bezala, ordea, erantzunak baino gehiago dira galderak. Ez, ordea, buelta emanda amu bilakatzen direnak, gizarteak egiten dizkigunen gisakoak; aitzitik, askatzea helburu duten galderak dira hauek, erronka itxura dutenak. ●



MUSIKA

Gorde ondo arrautzak!



LUKIEK #2

LUKIEK

AUTOEKOIZPENA, 2021

IKER BARANDIARAN

Mungiako talde gazte hau hiru azeri zaharrez osatuta dago: Anton Goikoetxea (baxua), Christian Rodriguez (bateria) eta Josu Ximun (ahotsa eta gitarra). Oharkabea sor-tu zen hirukoa, pandemia aurretik, eta 90eko hamarkadako soinuak erreibindikatuz kontzertuak egiten hasi eta lan bat argitara eman zuten. Beste talde batzue-tan ere badabilta kideak eta horietako batek –Belako– agenda estua izaten du. Bada, pandemia garaian buru-belarri jarri dira lan hau prestatzen.

Lukiek #2 lan borobila da; freskoa, bat-batekoa, baina aldi berean helduleku asko dituen. Lukieki buruz esaten da “euskaraz abestutako rock alternati-boan” dabiltzala. Eta hala da: mila urte

pasa badira ere, bazen ordua –salbuespen oso gutxirekin– bizkaiera kantetan plazaratzeko, eta gero eta estilo zabalagoetan, gainera. Eta lan honek badu hori, bizkaiera peto-petoa (edo ez) eta musika estilo paleta oso anitza.

SnK kantak hard-rockaren eta 70eko hamarkadako rockaren ertzean jaio eta gerora pop-rockaren eta post-rockaren arteko orekan egiten du aurrera. *Fluoreszenteak*-ek sinplea dirudi, baina Pixies-en zigilua duten melodia barnera-koi eta dantzagarriak ditu. *Eroan zaittue* Magazine-ren pareko gitarra gardenek gidatzen dute eta Alemaniako kutsua ere badu, ederra! *Izate iragankorrek* koka-tu daiteke grunge-aren zikintasun eta gordintasunean (TAD gogoan), nahiz eta

gero leundu eta oso popero bilakatu. *Klo-noa*-n laminek abestuko digute; kontuz! *Sorginorratz* pausatuagoa da, misterio-tsuagoa eta psikodelikoa, ia-ia epikoa. *Soro baten zoro bat*-ek izenari justizia egiten dio, indarra, esperimentazioa, Pri-mus eta erritmo sasi-industrialak batuz. Horren ostean, hiru sasi-ipuin ekarri di-tuzte: *Gaztelua* pieza akustikoa; *Sorgina* pieza instrumental kiribildu eta pisu-tsua; eta *Geziak* martzial eta epikoa. Eta bukatu aurretik, etxafuegoak: *Obabatxue* kanta erraldoia da: Al-Andaluseko ahaz-tutako talde progresibo handi haien pa-rean lo-kanta misterioitsu bat kiribiltzen duen kantutzarra. Noisea eta rock pisu-tsua melodiarekin batzen dituen *Tzar* abestiak ematen dio akabera diskoari. ●



Baina zer arraio da Tarara?

IÑIGO SATRUSTEGI DANI BLANCO

Sanfranen gaude, auzo eszena bat da eta kaleko zarata da nagusi. Ak-tore nagusia oso azkar ari da hizketan, orain mikrofonotik, orain mikrofonorik gabe. Rosa Teresa mintzo zaigu, batzuetan bere haurtzarotik, bestetan heldutasunetik. Biolina jotzen du, hori nahi zuela txikitatik eta osabak emango dizkio eskolak. Hala hasi da hain zuzen antzerki emanaldia, pianoaren laguntzaz, biolinaren musikarekin. Lehenengo eszena, bigarrena, hirugarrena... Iragarri egin dituzte, titulu eta guzti. Laugarrenerako apuntatzeari utzi diot. Kostatu zait sartzea. Informazio gehiegi dago oholtza gainean: zarata, oharrak, datak, gutunak, ahotsak... Gainditu nau. *Jarri arreta, Iñi*. Gero jakin dut ez nai-

zela bakarra izan, lagunak ere kostata egon dira hasieran.

Halako batean kantuan hasi da Jazmin. *La tarara sí, la tarara no*. Aire freskoa da Kepa Errastiren papera, ongi asko egiten dakienaren demostrazioa. Kantuan berriez Sanfraneko trabestia, *horteroaren* eta dotorearen arteko jantziak daramatza: *Todos me dicen el negro, llorona...* Azkoi-tieraz ari da *atxabaltakua*, eta jatorrizko bertsioan nongo azentuarekin egingo lukeen pentsatzen egon gara saio ostean. Guardia zibilak habanera kantatzeko eskatu dio? Itzultzaileen tarak.

Ikuskizuna aurrera joan ahala hasi dira matazaren hari-muturrak banan-banan askatzen: ama-alaba harremana, sute bat San Juan gaez, osaba Cristobal,

'TARARA' ANTZEZLANA HIKA KOLEKTIBOA

NOIZ: Otsailak 10


NON: Principal Antzokia (Gasteiz)

gertakizun bat eta Schubert, Bachnet eta Txaikovskiren agerpenak dituen biolin-jotzailea. Nola sinetsiko dute irudimen handiegia duen haurraren egia? *Emakume guztiek jasaten dute*. Aita ez da inon ageri, baina oso presente dago. Ordenatu egin dira arrosa metalikoen azpian ikusi ditugun hamapiko eszenak. *Emakume batek batzuetan egin beharrekoa egin behar du*. Klak, argitu da misterioa.

Baina zer arraio da Tarara? Tarara herri-kantua da, abesti mota bat. Bemo-lez eta sostenituz betetako hiru silaba, *ta-ra-ra*. Tarara Jazmin da, edo Manuel. Sanfraneko prostituta, trabestia, mari-koia. Tarara Rosaren laguna da. Ama bat. Tarara bortxa istorio bat da, jazarpenarena. Konplize eta konplizitate istorio bat. ●



Gurutzegrama



EZKER-ESKUIN:

1. Zurezko pieza laua. / Arin, azkar. **2.** Hor dagoena. / Erretzeko tresnak. **3.** Arabiar hizkuntza.
4. Argazkiko herria. **5.** Nafarroa Behereko udalerria. / Azkenik, azkenean. **6.** Donari, golardo. / Iraultzera behartu. **7.** Oinkada. / Rabateko herritar. **8.** Euria gelditu. / Saiatzea.

GOITIK BEHERA:

1. Abisu, adierazpen. / Lama. **2.** Toki horretan. / Onomatopeia. **3.** Nafarroa Behereko herria.
4. Liberiako herritar. **5.** Arnas ezak hil. / Kontsonante bikoitza. **6.** Azpia. / Illon mendizerrako mendatea. **7.** Iraupen laburreko sentimendu bizia. **8.** Ordenako sakramentua hartu duena.
9. Seigarren musika nota. / Errenta, alokairu. **10.** Ukatu aditzaren infinitiboa. / Enara.
11. Zelaia, toki laua. **12.** Abaguneak, aukerak. **13.** Burdinazko lokarri.
14. Begirunerik gabe jokatzeko duena. **15.** Euritik babesteko jantzi irazgaitza.

Sudokua

ERRAZA


4	6		1						
9		1			5	4			
	8			2		9	6		
	9		6	1	7		5		
7	2	5			4	6	1	9	
					2	8	4	7	
	7				1		8		
3		8		9		1			
	5				8	3			

ZAILA

		6	1	5	4	8			
4		1		8	3				
	8						5		
2		8	3				4	7	
3			9						
	6		4	7			2		
	3			1	6				
			8	4	9	5			
			5						

Esaera zaharra

KOKA EZAZU PUZZLEAREN PIEZA BAKOITZA
BERE TOKIAN ETA ESAERA ZAHAR BAT
AGERTUKO ZAIZU.



Anagramak

HITZ BAKOITZAK AURREKOAK DITUEN
HIZKI BERAK DITU, BAT IZAN EZIK, BAINA
BESTELAKO HURRENKERAN.

Alaitu

... topo, aurrez aurre

Sega-poto

Ferietako saltoki

Bete

Nekagarri

Urrin

Mingots, min

Ale edukiera neurria

Hitzaldi politiko

Azal mehe, gia

Tanga, pote

Txalupa mota

POZTU

POTIN

EBAZPENAK

"MARTXO IOR ETA BERO,
ARDOZ LEHER GERO."

ATOSITZA

POZTU
TOPOZ
OPOS
POSTU
OSATU
ASTU
NASTU
UASU
NASTU
SASU
IMINA
MITIN
MINIT
IZLNO
NITLO

ANAGRAMAK

ERRAZA
3. ARABIERA, 4. GATARRA, 5. ZARRO, AZKENKOZ, 6. SAIAKERA.
GOITIK BEHERA: 1. OHAR, SUA, 2. HOR, ZART, 3. ORAGARRA, 4. LIBERARRA, 5. ITO, TT, 6. PEA, ISU, 7. ZIRARRA, 8. APAIZA, 9. LA, AKURRA, 10. UKA, ELAI, 11. NABA, 12. ERAK, 13. KATE, 14. OZAR, 15. ZIRA.

Lidia Manot

EZ-MONOGAMIA ETIKOA



LARANJA ERDIAK EDO MANDARINAK

“Une ebolutibo pertsonal baten ondorioz sortu nuen Open Mandarinak. Bi harreman monogamo izan nituen, lehenbizikoa bi urtekoa eta bigarrena sei urtekoa. Dena ongi zegoela zirudien arren, mugaketa sentsazio iraunkorra nuen eta konturatu nintzen molde monogamoan sartzeko erabat ezabatu nituela bizitza eta harremanak bertze modu batean bizitzeko nuen modua. Bertze errealitate bat posible zela jabetu nintzen hori ikusarazten saiatu nintzen, eta horrela jaio zen Open Mandarinak. Amodio librez solastatzeko interesgarria iruditu zitzaidan kontakizunaren aldaketa sinboliko gisa, laranjen teoriarik oinarritu ordez, mandarinez solastatzea”.

“Feminsmorik gabe ez-monogamia etikoa ez da osasuntsua”

Lidia Manot (Bartzelona, 1990) ilustratzailea, dibulгатzailea eta Open Mandarinak proiektuaren atzean dagoen emakumea da. Sistema zalantzan jarri eta monogamia normatiboarekin identifikatuta sentitzen ez diren lagunak artatzen egiten du lan.

 SAIOA BALEZTENA  JORDI BORRÀS

Noiz murgildu zinen harreman irekietan?

Garapen pertsonaleko master bat egin nuenean. Bat-batean ikusi nuen erabat baztertua nuela niretzat garrantzitsua zen kontu bat: pertsona bakar batekin ezkondu eta harekin bizitza osoa pasatzea baino askoz ere gehiago dela bizitza. Baimena eman nion nire buruari informazioa eta alternatibak bilatzeko eta horrela izan nuen ez-monogamia etikoaren berri. Pixkanaka ezagutu nuen modu osasuntsuan eta urte anitzetan loturak mantentzen zituen jendea. Nire orduko bikotekideari proposatu nion, baina ez zen adostasunik egon. Bikotekiderik gabe gelditu nintzen jende liberal eta ez-monogamoia ezagutu nuen eta eroso sentitu nintzen. Horrela topatu nuen gaur egungo nire loturetako bat, eta bion artean akordio argiak jarri genituen polimaitasunean harremantzeko.

Erreferenteak izan zenituen?

Ez, eta horregatik sortu nuen Open Mandarinak. Gogoratzen dut hainbat pelikula ikusi nituela, baina dramaz eta kontrolik gabeko pasioz beteta zeuden. Eta ni ez nintzen horrekin identifikatuta sentitzen, betidanik

izan naiz lasaia harremanetan. Gerora *Ética Promiscua* eta Brigitte Vasalloren hainbat liburu irakurri nituen, nire teoriarekin bat zetozenak.

Zer da zehazki ez-monogamia etikoa?

Monogamiaren harreman eredu alternatiba guztien erreferentzia da. Adostasunaren edo kontratuaren arabera, ez-monogamiak barne hartzen ditu harreman liberalak, poliamodio hierarkikoa eta ez-hierarkikoa, eta bertze konfigurazio anitz.

Eta kontratua?

Harreman orok kontratu bat du, eta horrek definitzen du fideltasunaren kontzeptua. Monogamia normatiboan, adibidez, gizarteak zehazten du kontratu hori; ez dago une bat fideltasuna bakoitzarentzat zer den eztabaidatzeko eta, ondorioz, fideltasunaren eta desleialtasunaren arteko muga lausoa da. Aldiz, bertze harreman ereduak zabaltzen garenean, erreferentziatzeko hitzarmen bat izateari uzten diogu eta horrek behartzen gaitu bakoitzarentzat fideltasuna zer den landu eta elkarren artean adostasunetara iristera. Ez dago ezer begien bistan, introspektzio lana ezinbertzekoa da.

"Harreman orok kontratu bat du, eta horrek definitzen du fideltasunaren kontzeptua. Monogamia normatiboan, gizarteak zehazten du kontratu hori".



Brigitte Vasalloren arabera monogamia ez da praktika bat baizik eta sistema zapaltzaile bat. Ados zaude?

Hein batean bai. Argi dago sistemari monogamia interesatzen zaiola irau-teko. Vasalloren baieztapenean ka-rranka egiten didan gauza bakarra da monogamia bere horretan, harreman eredu gisa, deskribatzailea izan daite-keela, ez du zertan mugatzailea izan behar. Hau da, gisa horretako lotura duten bi lagunek jende gehiagorekin egon nahi ez badute, bikain. Arazoa da gizartean jende asko dagoela eredu horrekin eroso sentitzen ez dena eta, aldiz, sistemak ez du alternatibarik ahalbidetzen.

Harremanak eraikitzen ditugu he-rrestaka, "guztiok bezala" izateko, eta badirudi ezin dugula ezer desberdinik eskatu. Desadostasuna hitzez adieraz-ten badugu, sistema osoa, pelikulen, li-buruen, lagunen eta familiaren bitartez gainera etortzen zaigu. Eta uste dut aho betean adierazten ez duguna ezustean ateratzen dela azkenean, etikarik gabe; ez da kasualitatea desleialtasunaren in-guruan dauden estatistikak egotea...

Zer da zure ustez ez-monogamiaz gizartean jakina ez dena?

Aurki dezakegun bakea: badirudi ika-ragarri zaila dela harreman eredu ireki batean bizitzea eta drama ziurtatuta da-goela, eta hori ez da egia. Niretzat ha-rreman monogamo bat kudeatzea askoz zailagoa da. Ezjakintasuna dago, baita ere, egiten dugun lan emozionalaren inguruan. Jendeak uste du sexu harre-manak izaten ditugula denbora guztian, jende monogamo askoren obsesioa baita hori. Aldiz, guk jarraitzen dugu zaindu beharreko familiak izaten, lana egiten eta grinatzen gaituzten proiektu pertsonaletan murgiltzen. Gure lotu-rekin harremanak izateko modua gure bizitzaren ataletako bat bertzerik ez da.

Zein da gakoa zuretzat harreman ez-monogamoetan?

Emozionalki gure burua deseraiki eta lantzeko konpromisoa. Nahi duguna-ren inguruan askatasunez hitz egiteko aukera badugu, gure zaurgarritasunaz jabetzea ezinbertzekoa da. Abandonua-ren beldurra ernatu daiteke, antsietate, konparazioak, zu baino hobea den norbait aurkituko dutenaren beldurra...

eta hori gure autoestimua nola dagoen ikusteko lan zorrotza da. Ezinegona sentitzen dugunean zer gertatzen den ikusteko aukera dugu. Monogamia nor-matiboan, azterketa hori egin gabe, sa-rri gure burua babesten bizi gara, gure lotura arriskuan egon ez dadin.

Feministaren batek erran izan du poliamodioa patriarkala dela. Zer deritzozu?

Emakume gisa, nire bizitzako alorrak itota sentitzen nituen monogamia nor-matiboan bizi nintzenean. Azken urtee-tan, emakumeok independentzia ira-bazi dugu eta horrekin batera sekula erabaki ez genuen rol batean sartzeko ezkutatu behar izan ditugun gauza anitz deskubritu ditugu. Bertzalde, ulertzen dut feminismoak fokua jartzen duela zentzu honetan: ez-monogamia etikoak gizonezkoei mesede egiten diela, ema-kume anitzekin sexua izan eta, garapen pertsonalaren aitzakian, gure zeloak eta ondoeza gure kabuz kudeatzea aldarr-i-katuz. Edozein modutan, feminismo-rik gabe ez-monogamia etikoa ez da osa-suntsua, monogamia ere feminismo-rik gabe osasuntsua ez den bezala. ●

Zein da zure gerra?

 GORKA BEREZIARTUA MITXELENA

Gauzak diferenteak ziren lehen. Erran nahi baita, joan den astean: tabernetako terrazez idatzi zitekeen gerra-terminoak erabiliz. Kar, kar. Gero albiste-geiak broma bueltatu digu eta badira egun batzuk justu kontrakoa egiten ari garela: gerrari buruz jardun, tabernako terrazatik ariko bagina bezala. Eta kristo guztia horretarako entrenatuta zegoela dirudi. Zenbat arma arin zibilen eskuetan, ze kargatuta zeuden 280 karaktereko kartutxo horiek, harrituta geratu naiz.

Birkokatu behar dugu, antza denez. Kontua orain da lehen minututik asuntuari buruz iritzi super argi bat edukitzea –iritziak: genero merkea; garestia informazioa da–, eta gero oinarri hori baliatzea ekipo bat fuerteki animatzeko. Jarrera horrek esplikazio ugari izan dezake. Bat da, agian, oraindik ez dugula gure burua –gure besoak, gure hankak, gure tripak– ikusten Ukrainakoa bezalako lokazti batean sartuta. Pornografia belikoaren ikusle hutsa baldin bazara, dena da errazagoa. Bonbardaketak, tiroak eta tankeak leihora aterata kontenplatu ditzakezunean baino, alegia. Zeren hori ailegatzen bada, oinezko arruntarentzat superpotentzien *talent-show* honek grazia guztia galdu behar du momentuan.

Baina agian oker nago eta ez naiz behar bezala baloratzen ari *Call of Duty*-n eta tankerako jokoetan sartutako orduak nire belaunaldian utzi dituzten ondorio psikopolitikoak. Aurrekariak ere ez dira optimistak izateko modukoak: badago –beti dago– auzoko denda ixten dutenean “negozio-eredua” berritu beharraz hizketan hasten den listomariaren bat. Eta pentsatzen hasia nago sareetan ikusten ari garen zen-



Otsailaren 25ean bonbardatutako eraikin bat Kieven.

bait profil ez ote den pertsonaia horren mutazio gerrazalea besterik. Zu eta ni bezalako mindundi bat izan liteke, baina beste mindundi batzuen bizitza piktura joaten ari dela ikusi arren, bera bezalako mindundiez kezkatzeari gutxi irizten dio. Berak ikusi ditu zuek sinetsiko ez zenituzketen gauzak.

Horrek pentsarazten dit Internazional Mindundi bat sortu behar litzatekeela, geopolitikaren irakurketa mindundi bat egingo lukeena, saihesteko mindundiok gureak ez diren gauzengatik hankak, besoak, tripak eta burua galtzen bukatzea. Baina klaro, eskatuko luke “Gerrari ez!” ozen samar eta orokortu bat artikulatzea. Eta aurka agertuko dira, segur aski, azken egunetan hiztegian “naïf” hitza deskubritu ostean

gustetan dazten gazta baino gastatuago utzi dutenak.

Ederki izorratuta gaude. Hau da, eslogan bat adosteko ezgai izateraino bereizita. B plan bat behar zepo honetatik nolabait ateratzeko.

Irakeko inbasioaren garaian Bartzelonan okupatutako eraikin bateko horman zera irakur zitekeen: “Bestelako mundua ezinezkoa bada, eta gerra hau geldiezina bada: zein da zure gerra?”. Iritziak merkeak dira, esan dut lehen ere, eta horregatik debalde botako dizuet nire: akaso galdera horren inplikazioetan esploratzeak –ze gerra egin nahi dugun eta zein ez; nola definitzen dugun bakea, eta abar– erakutsi dezake bideren bat, buru nuklearrak dauzkaten aharien taldea honetatik haragokoa. ●

TXORI URDINAK

Espetxearen erretratu bat
Santi Cobos presoaren ahotik

Zigor Olabarria Oleaga

16€

+ 4€

bidalketa gastuak

40€-tik gorako
erosketetan,
bidalketa doan.

azoka.argia.eus

943 37 15 45

Santi Cbosek (Leon, Gaztela, 1968) bizitzaren erdia eman du preso. Pairatu ditu torturak, jipoiak, muturreko isolamendua, FIES sailkapena; burutu ditu hamaika protesta eta ihesaldi saiakera, bahitu ditu funtzionarioak eta poliziak. Bidean, Euskal Herriarekin adiskidetu da. Gordinkeria, umorea, gorrotoa, samurtasuna, hausnarketa nahasten dira Santiren lekukotasunean; bere bizipenez harago, espetxe-sistema ezagutzeko kontakizuna da berea.

212 orrialde

BENETAN?

Hau da guretzat nahi duzuen?

Garaiz gaude neskei beste etorkizun bat eskaintzeko, euren gorputz eta itxuraren gaineko presiorik gabe.

MARTXOAK 8 Emakumeen Nazioarteko Eguna

